



Kintoak bueltan

Joan den urteko etenaren ondoren kinto ospakizunak izanen dira Burundan asteburuan / 11-13

Joan den urtea 904 langaberekin despeditu genuen, aurrekoan baino 288 gutxiago / 2-3

Osasun unibertsal, %100 publikoa eta kalitatezkoa berreskuratzeko Herri Ekimen Legegilea / 5

Irurtzongo parte hartze aurrekontuen bidez 70.000 euro zertara bideratu erabakiko dute / 7

Egoitz Carrion irurtzundarra, Unai Lasoren arrakastaren arduradunetako bat / 18-19

'Begirada ezberdin bat' argazki erakusketa martxoaren 15era arte Sakanan / 23



Mondragon Unibertsitatea
Goi Eskola
Politeknikoa



ATE IREKIAK
Otsailak 9, 18:00

**INGENIARITZA
MEKANIKOKO GRADUA**


**GOIERRI
CAMPUSA**

Eman izena

www.mondragon.edu/ate-irekiak

2021ko langabezia herrika

Langabe kopurua (Herritarren langabeen ehunekoa)
Langabeen bilakaera



Alfredo Alvaro Igoa /
Iune Trecet Obeso SAKANA

Pandemiaren aurreneko urteak, 2020ak, langabeziaren gorakada ekarri zuen Sakanara: 305 langabe gehiago. COVID-19 gaitza gure artean dugun bigarren urtean langabeziak behera egin du, baina ez da iritsi pandemia aurreko mailara, eta pandemiak utzitako arrastoa nabari da. Izan ere, 2021ean 288 sakandar gutxiago zeuden langabezian, beraz, joan den urtean langabezia %24,16 jaitsi zen. 2020ko otsaileko datuekin parekatzeko 11 langabe gutxiago egon beharko liriteke ibarrean.

Generoari dagokionez, 2021ean gizonezkoen langabezia %31,15 jaitsi zen, 536tik 369ra. Emakumezkoen langabeziaren jaitsiera, berriz, %18,44koa izan da. Pandemiaren lehen urtean gizonezkoen langabezia handitu egin zen eta, ondorioz, bi generoen arteko aldea txikitu eta 10,06 puntu izatera pasa zen. Ekonomia berriro aktibatu zenean alde hori 18,37 puntuko izatera pasa, eta pandemia aurreko egoerara bueltatu da. Izan ere langabezian

288 langabe gutxiago

Joan den urtea 1.192 langaberekin hasi genuen Sakanan eta 2021. urtearen akaberan 904 sakandar zeuden lan bila. Haietatik 535 emakumezkoak ziren (%59,18) eta 369 gizonezkoak (%40,81)

dauden %59,18 (535) emakumezkoak dira eta %40,81 (369) gizonezkoak.

Adina eta sektorea

Adinari erreparatuta, 45 urte edo gehiagoko adin tartea da langabe gehien duena: 511, %56,53. Multzo horretan 2020an baino 63 langabe gutxiago zeuden urte akaberan, baina langabezia guztien ehunekoa 8,38 puntu handitu zen. Lan merkatuan sartu nahi dutenen adinari begiratuta, hurrengo taldea 25 eta 44 urte

artekoena da: 307, %33,96. Adin multzo horretan langabetuak 168 gutxiago dira, eta langabezia guztia kontuan hartuta, taldearen pisua 5,89 puntu jaitsi da. Azkenik, kopuruagatik, lan eskatzaile gutxien duen adin taldea 25 urtez azpikoena da: 89, %9,51. 2020an baino 57 gazte gutxiago eta 15,41 puntuko jaitsiera.

Sektoreei dagokienez, joera aldaketarik ez dago, lan eskatzaile gehienak zerbitzuen arloan lan egin nahiko lukete, zehazki, 561k (%62,06). Arlo horretarako

2020an baino 144 lan eskatzaile gutxiago daude, baina langabezian duten pisuak urte batean 2,92 puntu egin du gora. Industrian lanean 185 sakandarrek aritu nahiko lukete (%20,46), aurreko urtean baino 131 gutxiago, hau da, 6,05 puntuko jaitsiera. Eraikuntzan lan egin nahiko lukete 39 sakandarrek (%4,31); 2020arekin alderatuta bost langabe gutxiago eta 0,62 puntuko hazkundera. Lehen sektorean aritzeko prest 30 pertsona daude (%3,32), 2020an baino

hiru gutxiago eta 0,55 puntu gehiago. Azkenik, aurretik enplegurik izan ez eta lanean aritu nahiko luketen 89 sakandar daude (%9,85), bost gutxiago eta 1,96 puntuko jaitsiera.

Herrika aurreko urtean bi udalerritan igo zen langabezia. Ergoien langabezia %57,14 igo zen, 7 langabe izatetik 2021 urtea 11rekin ixtera pasatzean. Ergoien Sakanan guztiko langabeen %0,59 zeuden abenduaren 31n. Langabezia igo zen beste udalerrria Urdiain da, %4,76ko hazkundera izan zuena; urdindar bat gehiagok eman zuen izena enplegu bulegoan eta guztira 22 izan ziren 2021eko akaberan lan bila zeuden urdindarrak, sakandarren %1,76.

Sakanako gainontzeko 13 udalerrietan langabeziak behera egin zuen. Jaitsieraren ehunekoa erreparatuta langabe gehien galdu zuen herria Irañeta izan zen: %80, hau da, lau gutxiago eta irintar bat lan bila. Irañetak ibarreko langabeziaren %0,42 du. Ziordian jaitsiera %70ekoa izan zen, 14 gutxiago eta urte hasieran 6 ziordiar ziren lan bila



zeudenak. Ziordiak Sakanako langabeziaren %1,68 du. Beste hiru udalerritan ere nabarmendu da jaitsiera: Arruazu %66,67 (2 langabe gutxiago, 1; Sakanako langabeziaren %0,25), Iturmendi %48,15 (13 gutxiago, 14; %2,27) eta Bakaiku %46,15 (6 gutxiago, 7; %1,09).

Gainontzeko zazpi udalerrietan herena baino gutxiago jaitsi da langabezia: Olatzagutia %28,21 (33 langabe gutxiago, 84; herriko langabezia Sakanakoaren %9,82 da), Uharte Arakil %27,27 (9 gutxiago, 24; %2,77), Etxarri Aranatz %26,67 (28 gutxiago, 77; %8,81), Altsasun %25,41 (140 gutxiago, 411; %46,22), Arbizu %18,6 (8 gutxiago, 35; %3,61), Irurtzun %18 (27 gutxiago, 123; %12,58), Arakil %14,58 (7 gutxiago, 41; %4,03) eta Lakuntza %4,08 (2 gutxiago, 47; %4,11).

Kontratazioa

Joan den urtean Nafarroan 362.337 kontratu sinatu ziren, eta haietako 6.872 sakandarrek sinatu zituzten, herrialdeko kontratuen %1,89. 2020an baino 467 kontratu gehiago sinatu zituzten sakandarrek 2021ean. Esan bezala, gizon-emakumeen langabeziaren arteko aldea 18,37 puntukoa da. Baina kontratazioan 0,12 puntuko aldea besterik ez dago. Gizonezkoek joan den urtean 3.440 kontratu sinatu zituzten (%50,06) eta emakumezkoek 3.432 (%49,94). Beraz, emakumezkoek kontratu labur gehiago sinatzen dituzte.

Kontratu motari erreparatuta, joan den urtean Sakanan sinatu ziren kontratuen %91,09 hasieratik aldi baterakoak ziren (6.260). Mugagabe bihurtutako


kontratuak %5,01 izan ziren (344) eta, azkenik, hasieratik mugagabeko kontratuarekin %3,9 langile sakandar hasi ziren lanean (268). Sektoreei dagokionez, kontratuen erdiapasa, %52,1 (3.580), zerbitzuen arloan egin zen. Industriak joan den urtean egindako kontratuen %43,02 (2.956) bereganatu zituen. Eraikuntzari lotutako kontratuak %3,86 izan ziren (265) eta, azkenik, lehen sektorerako langileen kontratuak %1,03 izan ziren (71).

Sakanan joan den urtean kontratu gehien sinatu zituztenak altsasuarrak izan ziren, ibarreko guztien %32,14 (2.209). Kontratuak sinatzen ere irurtzundarrak nabarmendu ziren: %21,07 (1.448). Sinatutako kontratuen ehunekoari erreparatuta ondoren sei udalerritako


taldea heldu da: Lakuntza %8,32 (572), Etxarri Aranatz %8,21 (564), Arbizu %7,49 (515), Uharte Arakil %6,93 (476), Olatzagutia %6,64 (456) eta Urdiain %5,79 (398). Gainontzeko zazpi udalerrietako sakandarren kontratazio kopuruak txikiagoak dira: Arakil %1,37 (94), Ziordia %0,63 (43), Bakaiku %0,55 (38), Ergoiena %0,33 (23), Arruazu %0,22 (15), Iturmendi %0,16 (11) eta Irañeta %0,15 (10).

Kontratazioen erritmoari dagokionez, 2021eko ilbeltzean sakandarrek 399 kontratu sinatu zituzten. Hilabetez hilabete kopuru horrek pitteka gora egin zuen eta garagarrian 655era iritsi zen. Ordutik abendura arte antzeko kopuruetan ibili da kontratazioa. Salbuespena dira agorrila 443 kontratuarekin eta iraila 797 kontratuarekin.


2021eko langabezia generoaren arabera




2021eko langabezia adinaren arabera




2021eko langabezia sektoreka



2021ean egindako kontratuak sektoreka



2021ean egindako kontratu motak





ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

Erresonantziak

Zer da gaur eguna? Esaldi hau bukatzerako azken bederatzi hitzak iraganean gelditu dira. Eta hauek. Eta hori irakurri duen une horretako pertsona. Ni eta baita zu ere.

Iraganetik edaten dugu, etengabe. Eta atzoko "ni" horrekin topa egin beharrean edalontzian itotzen gara. Bakoitzak izandako aspaldiko nolakotasunez ari naiz, urteen ostein eta aldaketen poderioz atzean gelditu diren izaerez. Denok izan dugu noiz ala noiz katalogatu gaituen hori; lotsatia, frikia, ahoberoa, harroa... eta behin txartzat esleitu zizkiguten horiek hor geratzen dira, iraganeko inkozientean iltzatuta. Eta gaur egunekoan. Nolakotasun horietatik atera ezin izango bagina bezala. "Betidanik" lotsatia izan den horri lotsagabekeria zer den sentitzeko

EA BEHINTZAT, HAINBESTE BALDINTZATU GAIUEN HORI ITO ETA NAHI DUGUN BEZALA IZATEKO AUKERAK APROBETXATZEN DITUGUN

plazera ukatu bagenio bezala. Aldatzeko, berritzeko eta gaintzeko aukerarik ez bagenu bezala. Urteetan soinean eraman ditugun izaera zehaztuen zamak, gaur egungo inguru ezezagunetan eraiki ditzakegun harremanak erabat baldintzatzen dituzte. Eta guk, ezaugarri berriak garatu beharrean "atzo" izan

ginen horri lepoa estu heltzen diogu. Ea behintzat, hainbeste baldintzatu gaituen hori ito eta nahi dugun bezala izateko aukerak aprobetxatzen ditugun; urteroko erresonantzietan emaitza osasuntsu baina berriak topatzeko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXE** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Zure etxe hutsa gure etxebizitza izan daiteke

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Nafarroako Gobernuak hutsik dauden etxeak alokairurako poltsan sartzeko baldintzak hobetzeko eta errazteko neurri berriak onartu ditu. NASUVINSAK kudeatzen du alokairurako poltsa hau. 2016tik hasita dagoeneko 831 pisu daude aipatutako poltsan.

Berrikuntzetan azpimarratzekoa da NASUVINSA izango dela etxeak poltsan sartzeko behar lituzketen hobekuntzak eta egokitzapenak kudeatuko dituen, baita horretarako egin behar diren tramite administratiboak ere. Esaterako, gremioak antolatuko ditu, iturgintzako ziurtagiriak lortuko ditu, eta gasa eta argindarra instalatzeko eta erabiltzeko baimenak. Hori bai, tramite hauei dagozkien tasak jabearen ardura izango dira.

Bestalde, alokairurako uzten den etxebizitzako komunitateko gastuak (gehienez 50 euro/hilean) NASUVINSAK hartuko ditu bere gain. Honekin batera jabeek 1.500 euroko diru laguntza jasoko lukete eta baita errenta aitortpenean %40ko hoberia, etxebizitza alokatzeagatik jasotzen den diruaren kopuru osotik.

Beste berrikuntzen artean azpimarratzekoa ere, NASUVINSAK ezartzen duen alokatzeko prezioa 2013tik hasita geldirik egon bada ere, orain %11n igo egin dela. Honek esan nahi du oraingoan alokatzeko prezioa metro karratuko 5,5 eurokoa izango dela etxebizitzetan, 65,26 euro/metro karratuko garajeetarako eta 2,17 euro/metro karratuko ganbarengatik.

Alokairuzko kontratua bukatzen denean

NASUVINSAKo konpromisoa da etxebizitza utzi zen baldintza berdinetan jabeek bueltatzea (erabat margotuta eta enpresa batek garbituta).

Gaur egun alokairuzko poltsan dauden hamar etxebizitzetatik zortzi Iruñerrian daude. Horregatik eta ikusita gure zonaldean etxe dezente daudela hutsik, eta jende asko etxebizitza alokatzeko nahian dabilela, Gizarte Zerbitzuetatik Sakanan dauden etxebizitza hutsen jabeak animatu nahi ditugu, baldintza hauek begiratu eta alokairuzko poltsan sartzeko.

Horretarako NASUVINSArekin harremanetan jarri beharra dago (848 420 600). Bertan konpromisorik gabeko informazioa jaso daiteke.

Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzaileria:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzaileria:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuak



Altsasuarrak Herri Ekimen Legegilearen alde sinatzen herenegun.

Osasun publikoaren aldeko Herri Ekimen Legegilea

Osasun sistema publikoa berreskuratzeko estatuan 500.000 sinadura (Nafarroan 7.000) jaso nahi dira

SAKANA

Osasun publikoaren egoerarekin kezkatuta, Nafarroako Osasun Plataformak urteak daramatza mobilizatzen eta proposamenak egiten. Plataformako kideek jakinarazi dutenez, estatuko Osasun Publikoaren Pribatizazioaren kontrako Koordinakundearen ekimen bati bultzada emanen diote Nafarroan: Osasun unibertsal, %100 publikoa eta kalitatezko berreskuratzeko Herri Ekimen Legegilea. Koordinadorak lege proposamen bat aurkeztu du Espainiako Kongresuan eta bidea egin dezan gutxienez 500.000 sinadura behar dira. Horiek guztiak agorrilerako bildu nahi dituzte. Nafarroako Osasun Plataforma sinadura bilketan laguntzen hasi da, herrialdean 7.000 jaso nahi dituzte gutxienez. Asteazkenean Altsasun sakan-darren aurreneko sinadurak jaso zituzten. Gainontzeko herrietara ere zabalduko dute sinadura bilketa.

Plataformako kideek azaldu dutenez, Herri Ekimen Legegilearen bidez "osasun publikoaren egoerari buruzko ezinbesteko eztabaida kalera eraman nahi dugu, baita nahi eta behar dugun osasun sistema ereduari buruzkoa ere". Herri Ekimen Legegilearen alde sinatu nahi dutenek hauteskunde errodan izena emanda egon behar dute. Sustatzaileek eskatu dute datuak idazterakoan eta sinatzerakoan tentuz ibiltzeko, sinadura balio gabetu ez dezaten.

Proposamenak

Herritarrek sustatutako lege zriborroak bost proposamen nagusi ditu. Batetik, osasun arloa pribatizatzeko legeak indargabetu eta pribatizatutako zentroak berreskuratzeko eskatu dute. Horrela, enpresa pribatuek osasun sistema publikoan sartzea eragozti nahi dute. Bestetik, estatuan dauden pertsona guztiendako osasun arreta bermatzea eskatu dute, mugarik gabe, haien administrazio egoera edozein dela ere. Aldi berean, Herri Ekimen Legegilearen sustatzaileek lehen mailako osasun arreta berreskuratzeko eta indartzea eskatzen dute: gastu sanitarioaren %25 ematea, bere funtzioak bere gain hartzeko gai izan dadin, horrela espezializatutako arreta deskargatu eta osasun gastu orokorra murriztuz. Horrekin batera, eskatu dute adinekoen zentroetako osasun arreta sektore publikoaren esku egotea. "Kalitatezko osasun arreta bermatu behar da adinekoen eta mende-koen zentroetan, beharrezkoak diren lehen mailako osasun arretako eta arreta espezializatutako profesionalen parte hartzearen bidez, eta hori plantillak nabarmen handituta baino ez da posible izan". Azkenik, farmaziako eta osasun produktuetako sistema publiko bat sortzea eskatu dute. Batetik, funtsezko sendagaien, txertoen eta osasun produktu estrategikoen fabrikazioa bermatzeko, eta, bestetik, multinazionalakiko dependentsia saihesteko.

Klima aldaketara egokitzeko neurriak aztertzen

Udalek klima aldaketaren eraginak murrizteko arintze eta egokitze neurriak landu zituzten

SAKANA

Nafarroako Gobernuak LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren bidez Klima Aldaketaren aurrean herrialdearen erresilientzia handitu nahi du. Estrategia lantzen ari da, sektoreetan modu koor-

dinatuan aurrera egiteko. Alkatuen Itunaren eskutik, udal ordezkariak Klimarako eta Energia Iraunkorrerako Tokiko Ekintza Planak egitea aztergai izan zuten ilbeltzaren 11n. Honako proposamenak egin zituzten: nekaza-

ritza eta abeltzaintza jasangarriaren arloko jarduerak, basozaintza suteen aurreko prebentzio neurri gisa bultzatzea, baso kudeaketa iraunkorra eta ura bereizteko sareak sortzea eta mantentzea. Bestalde, honako neurri zehatzei lehentasuna eman zioten: garraio publikoaren sarea hobetzea eta mugikortasun alternatiboko sareak sustatzea. Horrekin batera, Sakanako udal-letako ordezkariak interesa azaldu zuten energia komunitateen garapenean.




Gure ikasleen ahotan



Ariane Mendiola Igoa (Etxarri Aranatz)
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza –LEINN-gradua ikasi zuen Mondragon Unibertsitatean.

"Mondragon Unibertsitateak ikasleenganako gertutasuna eta irakasleen konpromisoa azpimarratuko nuke"

Aurkeztu zure burua, Ariane. Ikasketak Etxarriko Ikastolan eta Altsasun, Batxilergoa, egin nituen. LEINN gradua amaitu eta gero bertan sortutako lan taldearekin, WEIF S. Coop. deituriko kooperatibarekin, bi urte inguru ibili ginen lanean arlo ezberdinetako proiektuetan. **Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua?, Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Nola baloratuko zenuke LEINNen bizitako esperientzia? Pertsonalki, eraldaketa izugarria izan nuen. Lau urtez, 11 pertsonen osaturiko talde batekin proiektu eta esperientzia izugarriak bizitzeko aukera izan nuen. Ondoren, horietako 6 lankidekin kooperatiba bat osatzeko aukera eman zidan LEINN graduak.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia? Zer azpimarratuko zenuke? Ikasketak tradizionalekin alderatuz oso metodologia ezberdina da. Lehen momentutik praktikotasuna, talde-lana eta dibertsitatea lantzen da. "Learning by doing" lelopean gauzatzen dira arlo guzti-tako ekintzak. Ebaluatzeak era ere erabat ezberdina da.

Lehen egunetik enpresa bat sortzen duzue unibertsitatean. Nola egiten da hori? Egunerokotasuneko lanean dago gakoa. Antolakuntza, errespetua, estrategiak, eta nola ez, taldeko elkarrizketak dira alderdi garrantzitsuak. Prozesu honetan, coach baten laguntza izan genuen momentu oro. Azkenean, komunitate handi baten babesa duzu. **Atzerriko esperientziarik izan duzu?** Bai, graduaren zehar urtero beste herrialde bateko merkaturia eza-gutzeko aukera izan genuen. Finlandian hasi genuen esperientzia, ondoren Ameriketara joan ginen, San Franciscora, eta hirugarren mailan, India eta Txinan igaro genituen 4 hilabete. **Zer egiten duzu orain eta etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?** Azken bi urte hauetan Madrilen burututako ikasketen ondoren (MBA Dirección de Empresas de Moda), Plentziako Piti Cuiti modako enpresan nabil lanean. Bertan, ecommerce eta nazioarteko salmentaren kudeaketak aurrera eramaten ditut. Aldi berean, Blockchain zerbitzuan oinarria duen proiektu bat aurrera eramaten nabil.

www.mondragon.edu/prest

Salto arnasgunera, salto euskarara

Udalerri euskaldunetako 14-18 urte arteko gazteendako udalekuetan izena emateko epea martxoaren 31ra arte dago zabalik. Udaleku ibiltaria garagarrilaren 27tik garilaren 3ra izanen da. Tolosa eta Etxarritik abiatuko dira, Leitzan elkartzeko

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Bosgarren urtez Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) bere kide diren herrietako gazteei zuzendutako Salto! gazte topaketak antolatu ditu. Aisialdiko jardura horrekin UEMAREN helburua da udalerri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziatzea eta eragile aktibo bihurtzea. Antolatzaileek azaldu dutenez, "euskaraz bizi diren gazteek inertziatik kontzientziarako saltoa ematea eta horrekin efektu biderkatzailea sortzea da helburua. Aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako egitarau erakargarria-



Aurreko Salto! topaketako parte hartzaile batzuk. UEMA

rekin, gazteak sentsibilizatu eta ahalduz kolektiborako pausoa eman nahi da".

Joan den urtean gazte asko eman zuten izena, eta asko kanpoan geratu zirenez, aurten parte hartzaileen kopurua bikoiztea erabaki du UEMAK, eta aurten ehun parte hartzaile izanen dira. Garagarrilaren 27tik garilaren 3ra izanen da udaleku ibiltaria. Tolosa eta Etxarri Arantz izanen dira abiapuntuak eta bakoitzean 50 parte hartzaile izanen dira. Lau eguneko zeharkaldiaren ondoren bi zutabeak Leitzaun elkartzeko dira eta han udalekuko azken hiru egunak emanen dituzte.

Izen ematea

Arbizu eta Etxarri Arantz UEMAKO kide dira eta, beraz, bertako gazteek eman dezakete izena udalekuan. Zehazki, 2004 eta 2007 urteen artean jaiotakoak. Izena emateko hiru modu daude: www.uema.eus webgunearen bidez, 943 816 699 telefonora hots egin edo hezkuntza@uema.eus e-posta helbidera datuak bidali beharko dira. Honako datuak eman behar dira: izen-abizenak,

helbidea, herria, jaioteguna, harremanetarako telefonoa eta e-posta helbidea. Udalekuak 95 euro balio du.

Ibilbidea

Abiapuntuetako bat Tolosa da. Garagarrilaren 27an Tolosa eta Alkiza arteko bidea egitea aurreikusia dago. Hurrengo Leaburu izanen da helmuga. Gaua han eman ondoren Berastegiraino joanen dira eta 30ean Leitza arteko bidea egingen dute. Etxarri Arantzetik abiatzen diren gazteek aurreneko etapan Larraun ibarerraino iritsiko dira. Hurrengo egunean ibar hartan bertan ibiliko dira. Hirugarren egunean Basaburuara joko dute, eta handik Leitza joko dute 30ean.

Bestalde, UEMAKO ardudadunek jakinarazi dutenez, udalekurako begiraleak eta sukaldariak ere behar dituzte, eta horiek hautatzeko prozedura ere abiarazi du UEMAK. Interesa dutenek beraien curriculumamartxoaren 4a baino lehen bidali beharko dute arnasgunea@uema.eus e-posta helbidera. Apirilaren 15erako jakinaraziko zaie erabakia hautatuei.

Emakumezko errefuxiatu palestinarrez Arbizun

Haien berri zabalago ezagutzeko gaur, errefuxiatu batekin mahai ingurua izanen da, ihes gelan sartu eta ateratzeko aukerarekin batera. Gainera, hilaren 14ra arte haiei buruzko erakusketa bertuala izanen da

ARBIZU

Zisjordanian dagoen Marda herriarekin senidetu zen Arbizu 2005eko garagarrilaren 14an. Orain Palestinar errefuxiatuendako Nazio Batuen Erakunde agentziarekin (UNRWA), Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuaren laguntzaz, egitaraua prestatu du. Hilaren 14ra arte www.mujeersequeluminan.es webgunean *Noor* erakusketa bertuala ikusgai dago. Gaur, 17:00etatik 18:00etara eta 19:00etatik 20:00etara, Arbizuko udalekuak *Misio humanitarioa Gazan* ihes gela hartuko du. Izena emateko

anitzartean@gmail.com e-posta helbidera mezua bidali behar da. Eta, azkenik, Palestinako errefuxiatu batekin hitzaldi mahai ingurua izanen da udaletxean 18:00etatik 19:00etara.

Erakusketaren izenburuko hitzak arabieraz argia esan nahi du. Eta erakusketak zortzi palestinar emakumezko errefuxiatuen "argiaren distirari jarraitzeko eta bidea egiten jarraitzeko eta bidea egiten jarraitzeko" emakume errefuxiatuen bizitzetara hurbiltzeko leihoa ireki du erakusketa bertualak. Hainbat adin,

leku eta egoera sozioekonomikotako Palestinako emakume errefuxiatuak dira erakusketa bertualeko ardatza. Duintasunetik, ametsak eta sentimenduak partekatzen dituzte erakusketan, eta beren eskubideak eta beren komunitateen bermatzearen alde lan egiten dute. "Ahalduz errefuxiatuak eta erresilientzia betetako argiak, okupazioari, blokeoari eta sistema patriarkalari aurre egiteko". Emakume errefuxiatuek 70 urte baino gehiago daramatzate babes egoeran, 50 urte baino gehiago Israelek Palestina okupatuta duela eta 10 urte baino gehiago Israelek Gazako blokeatuta duela.

Kanpin dendetan bizi diren siriarrandako mantak behar dira

Ayuda Contenedoresek ikastetxeak bilketa puntu bihurtzera gonbidatu ditu. Otsailean bildu nahi dituzte

SAKANA

Hamaika urte dira Sirian gerra dagoela. Ondorioz, makina bat pertsona bizi dira gaur egun olanazko kanpin dendetan. Egoera elurteekin okertu da. Elurra dendan gainean erori eta bere kargarekin dendek beheara egiten dute. Hori gutxi ez, eta dendan bizi direnak berotzeko barruan sua egiten dute. Elurrak denda ondoratzean su hartzen du. Horren jakitun, Ayuda Contenedoresgobernuaz kanpoko erakundeak (GKE) mantak bildu eta Siriara bidali nahi ditu. Otsailean egin nahi du bilketa eta hilabete akaberan kamioi bat beteta bidali nahi dute.

Sakandar gehiagorengana iritsi ahal izateko Ayuda Contenedoresek ibarreko ikastetxeei dei egin diete bilketa puntu izateko. Andra Mari ikastolak dagoeneko bat egin du. Azaldu dutenez,



Inguru elurtuan manta jaso berri.

ikastetxeetan jasotako mantak hilabete akaberan jasotzera pasako lirateke. Zalantza duenak 635 521 611 telefonora hots egin dezake (Jose Luis). Bestetik, asteazkenean 10:00etatik 13:00etara, Altsasuko Frontoi zeharbideko 14an daude.

Aldaketak parte hartze aurrekontuetan

Udalak 70.000 euro bideratuko ditu. Lau proiektuetako baten alde egiteko aukera dute 16 urtetik gorako irurtzundarrek 7tik 19ra. Botoa aurrez aurre edo udalaren telefono mugikorretarako 'Irurtzun' aplikazioaren bidez emateko aukera izanen da

IRURTZUN

Irurtzundarrek udalaren aurrekontuko diru zati bat zertara bideratu erabakitzeak aukera izanen dute. Hamaikagarren aldia da irurtzundarrek erabakia hartzeko aukera zuzena dutela. 2021ean parte hartze aurrekonturik izan ez zenez, orduko eta aurtengo diru kopuruak batu ditu udalak. Geroz, irurtzundarrek 70.000 eurori zer erabilera eman erabaki beharko dute. Lau proposamen dituzte aukeran.

Berritasuna da ere bozketan 16 urtetik irurtzundarrek parte hartzeko aukera izanen dutela, beti ere, identifikatuta. Botoa emateko epea astelehenean zabalduko da eta hilaren 19an despeditu. Botoa emateko hiru modu daude. Batetik, udalaren telefono mugikorretarako Irurtzun aplikazioa dago, play store edo appstoretik doan deskarga daitekeena. Aukera horren alde egiten dutenek, astelehenetik 13ra arteko epea izanen dute lau



Irurtzundarrak azokan hizketan.

proposamenetako baten alde egiteko.

Beste aukera botoa aurrez aurre ematea da, beti ere, nortasun agiria erakutsita. Horretarako aukera egonen da otsailaren 16an, asteazkenarekin, 11:00etatik

13:00etara udaletxean; otsailaren 18an, ostiralarekin, 18:00etatik 20:00etara, osasun etxeko arkupeetan eta otsailaren 19an, larunbatarekin, 11:00etatik 13:00etara, osasun etxeko arkupeetan. Azkenik, preparirurtzun@gmail.com e-posta helbidera bidali daiteke botoa. Eta harekin batera izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia.

Ohi bezala, parte hartze aurrekontuen informazioa eta boto orriak herriko etxeetan zabaldu dituzte. Sustatzaileek irurtzundarrei gomendatu diete "proposamena aukeratzeaz aparte, 'nire kalean edo auzoan dauden akatsak edota hobetzeko proposamenak' izeneko boto orriaren ekarpenak egiteko; antzemandako hutsune eta arazo garrantzitsuak udalari helarazteko". Udal aplikazioaren bidez ere ekarpenak egin daitezke: "Irurtzun hobetu" atalean "Bidali orain" aukeran, sakatu "Testua/Testua", idatzi eta sakatu "Enviar/ Bidali".

Lau proposamenak




Hilerriko pareko asfaltoa

Inguruko zuhaitzen sustraiengatik, Erga kaleko asfalto zati bat hainbat lekutan altxatuta dago. Plazaola eta kanposantu parearen arteko zatian nabarmena da. Galtzada altxatzea eta asfaltatze berria egitea da helburua.



Mendiko ibilbideak

Saien balkoia ibilbidea berriro homologatzea eta Irurtzun eta Latasa lotuko dituen ibilbide bat sortzea: Plazaolatik Trinitaterantz, ermitarantz desbideratu eta handik Latasara jaitsi, Arrantzaleen bidea hartu.



Larrazpi hobetzea

Larrazpi Irurtzongo gazteei (16 urtetik goitikoei) hainbat jarduerarako utzitako udal lokala da. Leihoak hobetzea, elektrizitate instalazioa aldatzea eta sukaldarako hainbat elementu instalatzea aurreikusten da.



Aparkalekuko zorua

Liburutegiaren ondoko espazio irekiko zorua homogeneizatu eta hobetzea da proposamena, aparkaleku gisa erabiltzeko aukera emanez, jaietako barrakak jartzeko edo espazio irekitako egokiak diren beste erabilera batzuetarako.

Gasoleo A ibilgailuentzat
Gasoleo B nekazaritzarako
eta kalefakziorako

www.iparoil.com

IPAR OIL

IPAR OIL

GASOLEO BANAKETA

Sanakako bailara
Telf.: 620 143430

<p>Langraiz Oka Los Llanos industriagunea 01230 Langraiz Oka (Araba) 945 371358 • 648 250975</p>	<p>Santurtzi Aparakabisa industriagunea 48980 Santurtzi (Bizkaia) 945 371358 • 686 525761</p>	<p>Urnieta Erratzu industriagunea - 201 20130 Urnieta (Gipuzkoa) 943 330311 • 646 716256</p>
---	--	---

Eraldaketarako mugarrien berri ematera

Nafarroan barna eginen duen informazio saioen errondan, Mikel Irujo Amezagak, Ekonomia eta Enpresa Garapenerako kontseilariak, aurreneko geldialdia Sakanan egin zuen asteartean

ALTSASU

Informazio saioaren ardatzak bi izan ziren: Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Departamentuaren aurtengo estrategia ildoak azaltzea batetik, eta, bestetik, eginen dituen diru laguntza deialdien berri ematea. Topaketan Next Generation EU funtsetara sartzeko eta Europak hurrengo urteetarako ezarritako mugarriak betetzeko jarraitu beharreko pausoak azaldu zituen Irujok. Pauso horiek trantsizio ekologikoaren eta digitalaren ingurukoak dira, eta epe argiak dituzte: 2030 eta 2050.

Eraldaketa

Kontseilariak esan zuenez, "jasangarritasunaren, zirkulartasunaren eta eraldaketa digitalaren konbinazioak egungo eredu ekonomikoaren eraldaketa osatzen du, funtsezkoa baita enpresen eta eskualdeen lehiakortasuna hobetzeko". Nabarmendu zuenez, "gobernuak tinko eusten dio lurraldearen ekonomia eta gizarte garapenarekiko konpromisoari, eta, horri esker, Nafarroako produkzioaren lehiakortasuna indartu daitekeela, gizarte, ingurumen eta lurralde iraunkortasunaren ikuspegitik". Departamentuaren Nafarroako Espezializazio Adimentsu eta



Sakanako ordezkariak kontseilariarekin batera bilera akaberan.

Iraunkorrerako Estrategia berriak, S4k, "ikuspegi bat ematen dio Nafarroari 2030erako, Europan erreferentziatzeko eskualde gisa, ekonomia iraunkor, digital eta lurraldearekin eta pertsonen konprometitutako baterako trantsizioan", azaldu zuen Irujok, gaineratuz: "S4ren helburua da jasangarritasuna hobetzea berrikuntzaren bidez, susperraldi jasangarria bilatuz, klima aldaketaren aurkako borrokarekin koherentea izango dena, eta, horrela, 2050ean emisioetan Europa lehen kontinente neutroa

izateko helburuan laguntzea". Kontseilariak gaineratu zuenez, "S4ak lehiakortasun faktoreak sartzan ditu, lurraldearen produktibitateari eragiten dioten baldintza eta baliabide multzo bat, eta enpresen jarduerarako testuingurua eta gaitasunak hobetzea ahalbidetzen du".

Topaketan izan ziren Altsasuko Dendarien Elkarteak, Bidelagun Turismo Elkarteak, Sakanako Enpresarien Elkarteak, Cederna-Garaluz, Sakanako Garapen Agentzia eta hainbat udaletako ordezkariak.

"Trantsizio ekologikoa eta digitala egiten ez duenak ez du gerorik"

MIKEL IRUJO AMEZAGA EKONOMIA GARAPEN KONTSEILARIA

Zertara etorri zara gaur Sakanara?

Urte garrantzitsuan sartzen ari gara. Alde batetik, Nafarroako S4 estrategia abenduan onartu genuen. Hor bi ardatz direla nagusi daude: trantsizio ekologikoa eta trantsizio digitala. Hori da Nafarroak behar duena. Eta Europak eskatzen diguna. Ildo bakoitzean zer nolako tresnak ditugun hori bultzatzeko eta laguntzeko, hori azaldu dugu.

Munduan lerrotatze berdea eta digitala daude, ezta?

Ekologiarako trantsizioan argi izan behar dugu ez ditugula tresna guztiak berriak behar. Baita ere. Baina egokitu behar ditugu ditugun tresnak. Esaterako, inbertsioa. Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen inbertsio lerroek kontzeptuak bere baitan sartu behar dituzte, esate baterako zirkulu ekonomia. Enpresek ikusteko, laguntzeko eta garatu ahal izateko. Edo energia



eraginkortasuna. Gainera, gaur egun dituen prezioekin. Hainbat tresna ditugu, ez bakarrik diru laguntzak, zerga dedukzioak, estrategiak eta garatzen diren bestelako ekintzak.

Merkatu gero eta globalagoan laguntza ematea merkatu berriak emateko?

Ekologiarako eta digitalerako trantsizioa egiten ez duenak ez du gerorik, 2030era ez da heltzen, enpresa eta gizarte gisa. Hori ez da bakarrik nahi dugulako, baizik eta behar dugulako egin behar dugu trantsizioa. Hori garbi esan behar dugu. Kontuan izan: Europan munduko biztanleriaren %6 bizi gara bakarrik. Oso txikiak gara. Beraz, edo indartzen ditugu bi lerro horiek, kontinente bezala lehiakor izateko, edo akabo. Bestalde, ekologiarako trantsizioa egin nahi dugu gure seme-alabei planeta on bat uzteko. Digitalerako trantsizioa behar dugu gure ongizatea handitzeko. Bi ardatzek bat egiten dute, eta departamentutik hainbat lerro bulkatzen ari gara.

Herriko denda txikia, taberna, landetxea, enpresa handia... Guztiak egokitu behar dira?

Bai. Esandakoa autonomo bati edo enpresa handi bati aplikatzen zaio. Denok ikusi behar dugu zer nolako lehentasunak ditugun. Merkataritza txikia laguntzeko hainbat lerro ditugu. Turismo eta merkataritza garatzeko aurten Next Generation funtseko bultzada handia heldu da: 21 milioi euroko aurrekontua. Une historikoa da. 2022an eta 2023an oso aurrekontu garrantzitsuak izango ditugu.

Lantegietatik lan erreformaren kontra egin dute

Lan erreforma salatu eta lan harremanen esparru propio baten aldeko elkarretaratzeak egin ziren

SAKANA

Erredakzioa ixterakoan oraindik ez zen bozkatu Kongresuan Espainiako Gobernuak, UGTk, CCOOk eta CEOEk adostutako lan erreforma. Baina parlamentariak botoa eman aurretik go-

bernuko ordezkariak jakinarazi zuten lan erreforma berresteko nahikoa boto zitu zela. Bezperan, herenegun, ELA, LAB, STEILAS, ESK, Etxalde eta Hiruk deituta, lan erreformaren kontra eta lan harremanen esparru propio ba-

ten alde agertu ziren Sakanako makina bat enpresatan langileak. Kartel edo pankarta bidez adierazi zuten lan erreformaren kontra zeudela. Horrekin batera, asteazken eguerdian elkarretaratzea egin zen Iruñeko udalderaren aurrean. Elkarretaratze hori Hego Euskal Herriko lau hiriburuetarako egindako deialdiaren parte da. Aurretik, igande eguerdian, euskal gehiengo sindikalak deituta manifestazioak egin ziren Hego Euskal Herriko hiriburuetan.



Langile talde bat lan erreformaren kontra bilduta. @LAB_SAKANA



Iortia kultur guneko aretoa literalki txiki gelditu zen, kanpoan, sartu ezinik jende asko gelditu baitzen.

Osasun zerbitzuarekin 'oso kezkatuta' jendea

Toki faltagatik Nafarroako Osasun Plataformak eta osasun eskualdeko langileek emandako hitzalditik kanpo gelditu zen jendea. Osasun sistema publikoaren alde aktibatzeke deia egin zuten. Langileek bizi duten egoeraren berri eman zuten

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Osasun publikoaren egoera gero eta okerragoa da. Pertzepzio hori du jendeak. Eta hainbat pertsonen adibideren bidez haien lekukotza ematen dute kalean.

Asteazkenean kezka bera zuen jendea Iortia kultur gunera joan zen, Nafarroako Osasun Plataformak hitzaldia antolatua baitzuen. Sartu aurretik jendartearen hizketaldiak kezka horren isla ziren. Osasun sistema publikoa gero eta okerrago ikusten dute azken urteetan, eta egoera zuzendu beharrean gero eta okerrago dagoela ikusten dute. Kezka horrek eraginda jende ugari joan zen hitzaldira. Antolatzaileek areto txikia eskatuta

zuten. Azkar asko bete zen hura eta kanpoan 50 pertsona baino gehiago gelditu ziren ezin sartu. Hitzaldia areto handira aldatzeko antolatzailen ahalegina alferrikakoa izan zen, penaz, sartzetik ez zutela adierazi zieten pasabidean gelditu zirenei. Areto betean adineko jendea nagusi zen, baina helduak eta gazteren batzuk ere joan ziren hitzaldira.

Esandakoak

Plataformako kideek azaldu zuten, "Nafarroan lehendik hondatzen ari zen osasun sistema publikoa pandemiak larriagotu du eta prekaritate maila oso kezkatarrira iritsi gara, bereziki osasungintzako langileak

falta direlako". Nafarrek behar bezalako arreta ez dutela jasotzen, edo arreta desegokia jasotzen dutela gaineratu zuten. Eta Osasunbideko langileek gehiegizko lan karga dutela nabarmendu zuten.

Altsasuko osasun eskualdeko langileek ere hitza hartu zuten. Azaldu zuten, sei mediku egon beharko lukete eta gaur egun plaza bat bete gabe dago. Ondorioz, Olatzagutian osasun arreta egunero beharrean astean hirutan eskaintzen da. Sendagileez aparte, osasun eskualdeak honako lanpostuak ditu: sei erizain, pediatriako erizain bat eta beste lanaldi erdi bat dago, errefortzuko erizain bat, pediatra (beste

lanpostu erdi batek urteak daramatza bete gabe), gizarte langilea, larrialdietarako hiruna mediku eta erizain, bost administrari (lau Altsasun eta bat Olatzagutian) eta beste administrari bat lanaldi erdian (arratsaldeak eta larunbatak). Gainera, fisioterapia zerbitzua egunero eskaintzen da goiz eta arratsalde, errehabilitazioan aditua den medikua astean bitan heldu da eta astegun guztietan X izpien zerbitzua dago.

Langileen ordezkariak azaldu zuten, haietakoren batek baja hartu edo oporretan joaten bada, Osasunbideak ez du ordezkorik jartzen. Azaldu zuten, Osasunbidearen aldetik "desinformazio etengabea" bizi dira. Egoeraren okertzeagatik erabiltzaile batzuen aldetik errespetu falta, irainak eta bestelakoak jaso dituztela azaldu zuten. Aurrez aurreko kontsultei dagokienez, azaldu zuten erizaintzako kontsultak egin izan direla eta medikuen agendak azken hiruzpalau hilabeteetan pandemiaren aurreko antzekoak direla.

Entzundakoak entzunda, entzule batzuk osasun publikoaren alde antolatzeke prest azaldu ziren. Haietako batzuk hurrengo egunetan hitzordua jarri eta biltezeko gelditu ziren, beti ere, osasun publikoaren alde lan egiteko. Bestalde, Plataformako kideek aurreratu dutenez, udaletan mozioak aurkeztu eta Nafarroa mailako mobilizazioa egitea ztertzen ari dira.

GOBERNUAK EZ DITU LANGILEEN BAJAK ETA OPORRAK ORDEZKATZEN ETA LANA PILATZEN ZAIE

Ur biltegirako iragazkia 2025erako jarrita

Nafarroako Gobernuak lagunduko dituen lanen artean dago Irañetako Udalaren eskaera

IRAÑETA

Herriak zuen ur biltegiak, gaitasun faltagatik, ez zuen Nafarroako Gobernuaren legedia betetzen. Kontserbazio egoera txarrean zegoen eta ur ihes asko zituen. Gainera, momentu jakinetan arazoak zituen ondoko abeltegiak urez hornitzeko. Irañetako Udala hamaika urtez borrokatu zen foru administrazioarekin ur biltegi berri baten lanak finantza zitzen. Lortu zuten eta 2020ko udazkenetik martxan da ur biltegia.

Kontua da ur biltegian iragazte sistemarik ez zela jarri, aurrekusi ez zelako edo horretarako hainbeste diru ez zegoelako. Horren ondorioz euri asko egiten duenean ura arretu, pixka bat zikindu egiten da. Egoeraren berri eman zion Irañetako Udalak Nafarroako Gobernuari. Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ziriza Perezek ilbeltzaren 25ean jakinarazi zuen 2025 urtera bitartean 42 milioi euro inbertituko dituztela goiko ur hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko azpiegiturak hobetzeko eta berritzeko. Jakinarazi zuen 44 lan eginen direla, eta horien artean Irañetako ur biltegian iragazte sistema jartzea dago.

PORTUKO
okultismo

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Ongi pasa santagedak!

BILTOKI
TABERNA · JATETXEA

Ongi Pasa Santa Agedan

Larunbatean bokatak barran

948 562 348 · Altsasu

Txalaparta
Taberna

Ongi pasa santagedak!

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

xapatero
taberna

Etxeko krocketak eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz

KOLABORAZIOA

Sakanako beste bi toponimo nagusi

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Aurreko hilabeteko artikuluan, haien izenetan fitonimoak (zuhaitz edo landare izenak) baliatzen dituzten bi herri izan nituen hizpide eta oraingoan Sakanako beste bi herrirenak saiatuko naiz argitzen. Fitonimorik ez haien osagaien artean, baina badute, nire ustean behintzat, esanahiaren aldetik elementu komuna, ura edota urarekin zerikusia duen osagaia.

Lakuntza

Mitxelena (Apellidos Vascos, 1953) *Lacunza* aipatzen du beste izen nagusi batzuen artean liburuko 387. artikuluan *lako* osagaia aztertzerakoan "lagar" esanahiarekin eta baita 579.ean *-une* aztergai duenean, atzizki konposatuaren osaketan parte hartzen duela esanez. 569.ean *-tza* atzizkiarenean ere beharko luke izan liburuko aurkibidearen arabera, baina artikuluan ez da ageri. Hala ere, ez litzateke atrebentzia handia izan Mitxelena dendako Arakil mendebaldeko muturreko herriaren izen-osagaiak *lak(o) + un(e) + -tza* direla esatea.

Belasko (1999), antzeko bidetik doa, *laku* ("lago")

bakarrik bereizirik Mitxelena arenetik. Eta, azkenik, Salaberriren ustean ere *laku* da lehen osagaia, baina "lago" adieran beharrean, "aintzira"-renean. Eta amaieran, berriz, *-untza* atzizki konposatua ikusten du, hau da, funtsean, *-un(e) + -tza*, "toki urtsua" berak dioen bezala. Ez du baztertzeko, hala ere, latineko lacuna eta orduan lakun + *-tza* izan daitezkeela osagaiak, egia bada ere amaieran "laku + untza etimologia ikustera makurtzen" dela.

Nire hipotesiak, aurrekoen antzekoa balirudike ere, ez du lehen osagaia ur eremu iraunkor moduan ulertzen eta bestea, berriz, ezberdina dela iruditzen zait:

laku + (e)untz(e)a > lakuntza

Laku zenbaitetan eta euntzea (belardi, larre, pentze) gehienetan, horrelakoa litzateke, nire ustean, toponimo nagusi honek deskribatzen duen eremua. Pasa den urteko azken hilabeteko euriteen ondorioak jasotzen dituen argazkia ikusi besterik ez dago, Arakil ibaiko urak herriguneraino bertaraino ia iritsi zirela, lakua bailitzan. Eta hauxe,



XXI. mendean aurrera goazela gertatzerik bada, zer ez ote zen gertatuko duela hamarren bat mende edo gehiago ibaiaren ibilguak inolako oztoporik ez zuenean gainez egiteko.

Lakuntza, orduan, madura/padura edo sihats (*siyets*) izenen sinonimoa izanen genuke hipotesi honen arabera.

Donostian ere bada, nire ustean, horrelako osagaiak izanik, deskribapen berbera egiten zuen toponimoa, egia bada ere gaztelaniak erabat desitxuratu duela, beste kasu batzuetan egin duen moduan (La Reina < larraina; La Rubia < arrobia...): **La Kontxa < lakuntxa > lak(u) + (e)untz(e)a.**

Hurrengo irudia, Diego Cuelbis ikasle alemaniarak Londonen dagoen 1599an egindako eskuizkribu batean txertatu zuen eta bertan ikus daiteke nolakoa zen Donostia ordukoan, herrigunea egungo Alde Zaharreko iparraldera mugaturik. Gainerakoa, egungo Kontxa aldea, euntze irudian, laku itsasgora zenean

Urdiain

Urdiain toponimo nagusiaren osagaiak eta esanahia ziur zeintzuk izan daitezkeen esaten ez da lan erraza batere, baina zailtasunak zailtasun, nik neuk ondorengoak direla esaten ausartuko nintzateke: **ur + -di + gain > urdiain.**

Horiek izanen balira, orduan, bere osagaiak, esan dezakegu nahiko osorik eutsi diola jatorriko izenak mendeetako jardunari, ezen nahiko ohikoa den /g/ kontsonante herskari belare ahostunaren bokal arteko galera (egin > ein, egon > eon, begiratu > beiratu...) baino ez baitzaio gertatu bere bilakabidean.

Ur eremua izanen genuke "urdi", herriaren azpialdean, Burunda ibaia eta honen ibilgura isurtzen duten gainerako errekek osatzen

duela eta bi osagai horiei 'gain' izena erantsirik. Ur eremuaren gainaldea adieraziko luke, orduan, Urdiain toponimo nagusiak.

Nafarroako Unibertsitateko irakaslea den González Ollé-k bigarren osagairik gabe azaldu zuen bere artikuluan batean, baina zalantzarik ez azken osagaiarekin: "*Esta situación me trae el recuerdo literario de los obreros foráneos y sus familias instalados en Urgain (Urdiain), pueblo vascofónico, para construir la vía férrea Zaragoza-Alsasua.*" (2011, 737) (El navarro y el aragonés, Fernando González Ollé, Universidad de Navarra, Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra, 2011, págs. 729-760).

Sakandarrek, bestalde, ezaguna dugu Aranatz aldean H₂O formula kimikoa duen elementua ez "ur", baizik eta "u(ds)" izendatzen dugula eta osagai honekin eta *-di/-ti* atzizkiarekin bada Etxarri Aranatz eta Lizarragabengoa *Ustia* toponimoa, Arakil ibaiaren bazterrean eta ur tokia dela aipatu eremua adierazten du. *Urdi* eta *Usti*, orduan deskribapen bereko toponimoaren bi aldaera izanen genituzke.

1843an Iturmendi eta Urdiainen arteko muga zehazteko egindako planoan,

Urdinzar (*Urdinzau* ere bai) toponimoa ageri da, egungo Urdiain herriaren hegoaldean, Bargan gora, ia Urbasarekin muga eginez. Planoa Francisco Ergui-k egin zuen eta zalantzarik gabe, hiru aldiz idatzi zuen *Peña de Urdinzar*, *Urdinzar* eta *Portillo de Urdinzar*, iparraldetik hegoaldera hurrenez hurren. Eta planoaren ondoren, aldiz, azalpen idatzietan, Luis Losarcos-ek *Urdinzau* eta *Peña de Urdinzau*, baina baita Urdian ere Urdiain beharrean.

Egungo urdiaindarrek eta aldamenekoez ere *Urdin* erabiltzen dugu, baita deklinaturik ere: *Urdindi* (Urdiaindik), *Urdiñá/ Urdiniâ* (Urdiainera), *Urdingo* (Urdiaingo). Eta orduan, hipotesi moduan, 1843ko *Urdinzar* horrek, ondorengo osagaiak izan ditzake: *ur + -di + -(gai)n + za(ha)r*, haran aldera jaitsitako garaietakoa baino lehenagoko bizilekua adieraziz agian.

Bestalde Irantzuko *Libro Rubro* dokumentuan, *Hurdiaga* (Izurdiaga) ageri da Arakil ekialdean eta, ikus daitezkeen moduan, Burundakoaren ia osagai berberak ditu: *(h)ur + -di + -aga.*



DUELA 25 URTE...



Kaldor festa

Konponketa batzuk egiteko asmoz hasi eta lanak bi hilabetez luzatu zitzaizkien lixerengotarrei, espero baino pittin bat gehixeago. Herriaren jabetza da eliza eta halako eraikina erortzen uztea ez zela egokia pentsatzen zutelako hasi ziren hura konpontzen. Lanak despedituta, Bordatxo elkarteak hartu zuen kaldor festa. 30 lagun elkartu ziren bazkaltzera 1997ko otsailaren 2an.



2020ko kintoak dantzan. ARTXIBOA

Aurten gazteek kinto ospakizuna izanen dute

Joan den urtean COVID-19 gaitzagatik ospakizuna bertan behera gelditu zen

BAKAIKU

Bakaikun aurten kinta bakarra dago: Eider Vicente Goikoetxea-Ziordia. Joan den urtean ospatu behar zuen kinto festa, baina pandemiagatik bertan behera gelditu eta urte bat beranduago iritsi zaio festa garaia. Hala ere, horrek ez du esan nahi Vicentek kinto ospakizuna bakarrik egingen duenik. Izan ere, ohi denez, kinto zaharrak eta kinto gazteak egonen dira berekin batera. Aurrenak bi dira eta, atzenak, bi. Beraz, bost gazte bakaikuarrek osatuko dute kinto segizioa.

Gaur afaltzera elkartuko dira eta ondoren Iturmendira joko dute parranda egitera. Bihar egun handia dute. 09:00ak aldera elkartuko da kinto segizioa. Boskoteaz aparte beste hamar beti kinto izanen dira: 1979ko kintako lau eta 1994ko sei. Gosaldur ondoren, trikitilari eta panderojoleak lagun dituztela, kinto eskean arituko dira herrian barna. Jasotzen dutenarengatik esker ona azaltzeko kintoek ardoa eskainiko diote eskuzabal jokatzeko duten bakaikuarrei. Herrian barnako kalejira bazkal garaian despedituko dute. Aritzalko jatetxean bazkalduko dute eta, ondoren, Altsasuko bidea hartuko dute, han parrandan segitzeko.



Iturmendiko 2020ko kintoak. ARTXIBOA

2022an 22 kintoko segizioa osatuko da

Gaur hasi eta igandera arte izanen dira kinto ospakizunak Iturmendin. Zazpi kintorekin batera kinto zahar eta gazteak izanen dira ospakizuneko protagonistak

ITURMENDI

Zazpi iturmendiarrek osatzen dute aurtengo kintada: Izaro Goikoetxea, Igor Goikoetxea, Gorka Rubio, Iratitz Lopez de Zubiria, Izaro Sukia, Irune Goikoetxea eta Julen Guerrero. Baina haiekin batera bi urte zaharragoak eta gazteagoak diren kintadetakoak ere izanen dira. Beraz, Iturmendiko kinto segizioa aurten 22 gazteak osatuko dute.

Asteburukoa ez dute kintoetako aurreneko egitekoa. Urte zaharreko gauerdian etxez etxe *Ur goiena* kantua abesten aritu ziren. Eta, horrekin batera, eskean. Joan den urtean pandemiagatik kinto ospakizunak ez zenez izan, dagoeneko 2020ko eta 2021eko kantu eskeetako dirua parrandarako dute gordea.

Kinto ospakizuneko protagonistak gaur arratsaldean elkartuko dira. Santa Ageda bezpera izanik, 18:30etik animazioa izanen da herrian (txokolate jana, koplak kantatu eta pintxo potea). Gaur sartuta dagoenean Aritzaga el-

kartean haiek prestatutakoa afaltzera eseriko dira. Pandemia ez zabaltzeko araudia betez, el-

Iturmendiko zortzikoa

Rubiok azaldu duenez, Iturmendik berezko dantza du, eta Santa Agedan dantzatzeko omen zen. "Herriko batzuk badakite dantza egiten, eta gazte batek musika partitura du". Kintoak argitu duenez, dantza berreskuratzeko asmoa dago. Saiakeraren bat ere izan zen duela bi urte edo. Kinto ospakizunen ondoren dantza dakitenekin hitz egiteko elkartu eta gaia mugitzen hasi nahiko lukete.

kartean 01:00etaraino egonen dira.

Larunbatean kinto segizioa 10:30 aldera elkartuko da elkartean, guztiak baserritarrez jantzi. Gosaldur ondoren, etxez etxe ariko dira eskean, parrandarako dirulaguntza eskatzeko. Eskuzabal jokatzeko duten iturmendiarrei, esker onez, kintoek moskatela eta pastak eskainiko dizkiete. Kalejiran herriko trikitilari eta panderojoleak izanen dituzte lagun. Egitekoak despedituta, kintoek Aritzaga elkartean bazkalduko dute. 19:00etan Altsasura joko dute, hango kintoak dantzatzeko. Ostalaritza 01:00etan itxi behar dutenez, kinto iturmendiarren asmoa da larunbatean Altsasun afaldu beharrean, osasun egoerak hobera egitean sagardotegi batera joatea. Kinto ospakizunak despeditzeko, gazteak domeka arratsaldean elkartuko dira eta pintxo merenduaren ondoren, Altsasun kintoak dantzan ikustera joanen dira.

Zortzikoa binaka dantzatuko dute

Aurtengo eta joan den urteko kintoak elkarrekin aterako dira plazara igande eguerdian

URDIAIN

Aurten Urdiainen bost kinto daude: Igor Aldasoro, Amaiur Zubiria, Adur Lekuona, Amaiur Goikoetxea eta Naiara Ayerbe. Haiekin batera zazpi kinto zahar eta hamazazpi kinto gazte ibiliko dira. Beraz, kinto segizioa 29 gazte osatuta egonen da. Guztiak ere baserritarrez jantzi eta gaur elkartuko dira, bazkaltzera. Mahaitik jaso eta kalera aterako dira trikitilariak eta panderojoleak lagun. Herrian barna arkume baten zozketarako txartelak saltzen ariko dira kintoak. Eta handik ateratako diruarekin kinto ospakizunetako gastuak berdintzea espero dute. Afaldu ondoren parrandarako asmoa dute kintoek.

Larunbat eguerdirako kintoak kalean izanen dira. Berez, kintaden eguna da Urdiainen larunbata, baina COVID-19 gaitzak eragindako osasun egoeragatik aurreko urteetan baino kintada eta jende gutxiago elkartuko dela espero da. Hala ere, aurtengo protagonistak potean ibiliko dira. Bazkaldur ondoren erroto eta Sarabeko baserriko bidea hartuko dute. Haietan dantzatu eta dirua eskatu ondoren, afaltzera bueltatuko dira.

Domekan esnatu, gosaldur eta eguerdian plazan izanen dira. Urtero moduan kintoek zortzikoa dantzatuko dute. Baina aurten bada berezitasunik. Joan den urtean, pandemiagatik ospakizunak bertan behera gelditu zirenez, 2021eko kintoek aurtengokoekin batera dantzatuko dute plazan, binaka. Ilbeltzeko asteazken eta ostiraletan Javier Zelaia-zen esanetara zortzikoa entseazten egon dira. Dantzatu ondoren, arkumea zozketatuko dute kintoek. Eta bazkaldur aurretik herriaren goiko partean kinto eskean ariko dira. Mahaitik jasota, berriz, herriaren beheko partean. Eta afariarekin, kitto.

"Bozketa egin eta ez atzeratzea erabaki zen"

IXONE RODRIGUEZ SANCHEZ ETA AINARA DIAZ PEREZ ALTSASUKO KINTO BURUZAGIAK Ostiralean jakin zen pandemiagatik murrizketek indarrean segitzen dutela. Erabakiak hartzea egokitu zaie joan den urtean kinto ospakizunik gabe gelditu ziren 57 gazteei

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Aurtengo kintoek aspaldi dituzte Santa Ageda egunean, bihar, jantziko dituzten jantziak. Emakumezkoek oinetan artilezko galtzerdiak eta zatak izanen dituzte. Koloretako base-rritar soinekoak jantziko dituzte. Soinekoetan, nahi izanez gero, gogoko irudiak brodatzen dituzte. Soinean atorra eta kor-tsea janzten dute. Lepotik zintzilik zapi bat eramaten dute, nahi bezala pertsonalizatuta dagoena; gogoko irudiekin normalean. Hotza kentzeko, kaikua. Jantzi hori, galtzerdiak eta zatak dira emakumezkoen eta gizonezkoen janzkerak berdina dutenak. Azken horiek praka eta atorra txuria janzten dute. Mutilek bi zapi eramaten dituzte soinean gurutzatuta. Bat haiendako da eta pertsonalizatuta dago, eta bestea dantzara aterako duten pertsonari emanen diote. Gizonezkoek eskutan makila eramaten dute. Hura edertzeko zintak norberaren gustuko irudiekin pertsonalizatzen dituzte, marrazkien bidez, edo brodatuta.

Erregeak eskuetan erre egiten du? Zer moduz 2002ko kintoen buruzagi karguarekin?

Ixone. Inpresioa.

Ainara. Momentuan zeinen gaizki pasa nuen. Baina, gero, ez da hainbestera.

Zein dira zuen egitekoak?

I. Antolatu behar ditugu bazkariak, udalarekin hitz egin...

A. Apaizarekin hitz egin, catering enpresa batekin, larunbatean bazkaltzeko toki bat eskatu behar dugu...

I. Txistulariekin hitz egin beraiek jotzeko eta entseguetan aritu daitezten.

A. Eta dirua bildu, kontaktu, astoarekin egon, astoarendako zakutoak ere hartu behar ditugu...

Zuena kinta berezia da, urte bateko atzerapenarekin ospatuko baita. Zer sentitu zenuten joan den

urtean ospakizuna bertan behera gelditu zenean?

A. Alde batetik, gaizki sentitu nintzen. Koronabirusagatik Santa Ageda ez ospatzea pena handia izan zen. 2004ko kintoekin hitz egin genuen, atzeratzeko. Haiei ere kostatuko zitzaizen atzeratzea. Azkenean, urte bat atzeratuko genuela adostu genuen. Hasieran disgustua, baina hurrengo urtean egingen genuela ikusi genuenean, hobeto.

Saiatu zineten joan den urtean bertan festa egiten?

I. Ez. Gauzak oso gaizki zeuden. Pandemiarekin ezin zen. Jende asko eta ...

Luze egin zaizue urtea?

I. Pixka bat. Batzuetan urduri jartzen nintzen.

A. Niri ez.

Zeren aurten Altsasun Santa Ageda ospatuko da, ezta?

I. Bai, bai.

Nola?

I. Ez da izanen beti bezala, murrizketa eta hori guztia dagoelako. Baina dugunarekin moldatuko gara.

Beste urte bat atzera zitekeen...

A. Beste urte bat, ez. Pentsatu genuen bi aste atzeratzea. Baina bozketa egin genuen eta ezetz atera zen. Nik uste hori onena izan zela, etorri ezin zitekeen jendea zegoelako. Dantzatuko dugu, eta gero juerga egingen dugu, ordu bata arte. Eta gero ikusiko dugu zer egiten dugun.

Zer sentitzen da ospakizunaren bezperan?

A. Ni urduri nago, oso urduri.

I. Nik ez dakit nola esan.

A. Gainera Ixonek lehenengo dantzatzen du. Ni bigarrena. Eta hori, kontuz!

"BI ASTE ATZERATZEA PENTSATU GENUEN; BOZKETA EGIN GENUEN ETA EZETZ ERABAKI ZEN"

I. Tontakeria bat da, baina zuk sentitzen duzu... ez dakit.

A. Jende guztia begiratzen, zu hor dantzatzen, jendea animatzen...

Nola aukeratzeko da zeinek dantzatuko duen lehenengo?

I. Entsegu batean irakasleak txanpon bat airera bota zuen eta gurutzera atera zen, beraz, neskak hasi behar dugu dantzan.

Bakarren batek pentsa dezake urte bat atzeratzean entseatzeko denbora gehiago izan duzuela eta dantzari apartak zaretela. Hala da?

A. Ez da hala. Ni 24an etorri nintzen aurreko entsegura. Aurretik banekien, baina erritmoa eta hartzea kosta zitzaidan.

I. Ni pixkanaka joan naiz ikasten.

Txikitatik plazan kintoei dantzatzen ikusten egoten zarete. Gutxi gorabehera jakinen zenuten?

A. Bai, baina horretarako ditugu Maixela eta Aitziber, erakusteko nola dantzatu behar dugun. Badaudelako batzuk dantzariak direnak, esaterako, Oier (buruzagia). **Pasa den urtean plazan zortziko bat dantzatu zenuten, ezta?**

A. Bai, kar, kar, kar.

Noiz aterako zarete plazara?

I. 19:00etan, gutxi gorabehera. Eta egunero denak dantzan egonen garela uste dut. Baina jendea ikusten egon daiteke, edo ez dakit. Egunero hamarren batek dantzatuko dugu zortzikoa, larunbatetik asteazkenera.

Larunbaterako dena prest?

I. Bai. Larunbatean zazpiak, edo zerbait lehenago denok gosaltzera joaten gara. Ondoren kintoak eskatzera geldituko dira eta gu astoarekin geldituko gara. Eta opilak saltzera joanen gara. Eta esker onez dantza egingen diogu erosleari.

Bakoitzak opil bana egingen du?

A. Batzuk bikoteak osatu dituzte eta opila bien artean salduko dute.

Aurten zeinek eramaten du ardo zahatoa?

I. Urkok eta Ainitzek.



Ixone Rodriguez Sanchez eta Ainara Diaz Perez Altsasuko kinto buruzagiak.



Aurtengo Altsasuko kintoak dantza entseguan.



Herenegun hasi zuten kinto eskea olaztiarrek. UTZITAKOIA

Baten faltan, bi kinta!

Joan den urtean kinto ospakizunik ezin izan zenez egin, 2022an aurtengo eta joan den urteko kintadak osatuko dute kinto segizioa. Kinto ospakizunak herenegun hasi eta etzi despedituko dituzte

OLATZAGUTIA

Aurtengo kinto segizioa 25 olaztiarrek osatuko dute. Baina bi urtetan jaiotako gazteak dira kinto ospakizunetarako elkartu direnak: aurtengoak eta, pande-

miagatik, joan den urtean ospatzerik izan ez zutenak. Aurtengo kintoak 20 dira: Miren Ingelmo Kintana, Aimar Jañez Guruziaga, Ainhoa Agirre Rodriguez, Aratz Markez Imaz, Argider

Orabengoa Caro, Erkuden Rueda, Gladys Jumbo Chamba, Irati Gorospe Marques, Irune Arguelles Berastegi, Izaro Otaegi Jaka, Izaskun Landa Lasa, Maria Porcel Moran, Nahia Gil Amado,

Naroa Garcia Aristu, Olaia Sanchez Amiama, Oier Sarazibar Imaz, Xabier Pascal, Irune Gil Cruz, Idoia Baztarrika, eta Iñigo Bergara. Eta joan den urtean kinta zirenak bost emakumezko: Nuria Alberdi Jimenez, Ainara Baztarrika Mazkiaran, Maitane Vilariño Mendinueta, Alea Orabengoa Caro eta Saioa Lopez Gastaminza. Pandemiagatik ostalaritzako ordutegia murriztu dute, horregatik kintoek argi dute: "topera aprobetxatu ordu batak arte!".

Kinto olaztiarrek beraien ospakizuna herenegun hasi zuten. 07:30ean elkartu ziren, guztiak ere baserritarrez jantzita. Altsasuko ikastetxeetara joaten diren autobusak iritsi aurretik atera ziren kalera, eskatzera. Bost eguneko parrandarako gazteek dirulaguntza behar dutelako. Ondoren kintoak bi taldetan banatu ziren. Batek industrialdeko bidea hartu zuen lantegiz lantegi kinto eskean aritzeko, eta besteak etxez etxeko eskea egin zuen herrian. Horretarako, Itxabela txarangaren laguntza izan zuten. Kintoek ez zioten urteroko hitzorduari hutsik egin eta 11:00etan eskolan agertu ziren. Txikien artean miresmena sortzen duen bisita da kintoena. Haurrekin egon eta dantzatu zuten kintoek, eta, bide batez, haiek eramandako laukoak poltsikoratu zituzten. Gosariaren ondoren, kinto segizioa bazkal garairaino poteoan ibili zen. Eta

gauza bera afal garaia iritsi bitartean. Bitarte horietan ere eskean aritu ziren gazteak. Atzo 11:30 aldera elkartu ziren gosaltzeko, eta txarangaren musika lagun, poteoa eta kinto eskea uztartu zituzten. Gaurko plana berdina da. Baina 13:00etan, atzera ere, eskolatik pasako dira kintoak eta txaranga haurrekin egon eta dantzatzeko.

Larunbatekoa kintada eguna da Olatzagutian. Baina COVID-19 gaitza dela eta adinduenak ez dira elkartuko, eta osasun egoerak hobera egiten duenean, aurrerago, elkartuko dira ospatzera. Eta elkartzen diren gehienak sagardotegira joanen dira bazkaltzera. Kinto segizioak, berriz, herrian bazkalduko du. Horren aurretik, gosalduta eta txarangak lagunduta poteoan eta kinto eskean izanen dira. Kintoena ez da larunbatean Olatzagutian izanen den musika bakararra. Izan ere, udalak batukada bat kontratatu du. Perkusioaren erritmora dantzan ibiltzeko aukera izanen da 19:00etatik 22:00etara. Gero parrandak segida izanen du.

Domekarekin despedituko da Olatzagutiko kinto ospakizuna. Gazteak gosalduta eta mezara joanen dira. Ondoren, apaizari, medikuari eta herriko adinduenari eta gazteenari opil bana oparituko diete. Txarangaren laguntzarik ez dute izanen igandean gazteek. Baina ospakizuna borobiltzeko bazkari afariak ez dira faltako.

Bederatzikoa kinto ospakizunak bueltatu diren urtean

2022ko eta 2021eko kintoek elkarrekin ospatuko dute festa. Baita kinto gazteak eta zaharrak; guztira, hogeik

ZIORDIA

Aurten Ziordian bost kinto daude: Ione Li Berreguero Arregi, Aritz San Roman Iparragirre, Unai Mujika Mateo, Xuban Gorostola Rodriguez eta Lander Peral Mendia. Eta, haiekin batera, joan den urtean pandemiagatik kinto festa ospatzerik izan ez zuten gazteak ere izanen dira ospakizuneko protagonistak, zehazki honakoak: Naroa Barriola Goikoetxea, Naroa Otxoa Garmendia, Xabier Bengoetxea Ijurra eta Anne Lapuente Perez.

Bi kintadak batera eginez, ez da kinto izateko adina atzeratuko, eta Ziordian ohikoa denez, 18 urte betetzen diren urtean gazteek kintoak ospatzen segituko dute aurrerantzean ere. Aipatu bederatziekin batera sei kinto zahar eta bost kinto gazte ere izanen dira segizioan.

Kintoak gaur Errekakartearen elkartean bazkaltzera elkartuko dira. Eta, hortik aurrera, domeka iluntzeraino festa giroan ibiliko dira. Gaur herrian poteoan ibiliko dira eta bertan afaldu ondoren, "ahal den moduan juerga egingen dute".



Ziordiko 2020ko kintoak diru eskean. ARTXIBOIA

Larunbatean, eguerdirako, kalean izanen da kinto segizioa. Trikitilaria eta pandero jolea lagun dituztela herrian barna etxez etxeko eskea egingen dute. Bazkal garairaino luzatuko dute kinto eskea. Gainera, Ziordiko

gainontzeko kintadek ere larunbatean dute hitzordua eta giro ederra izanen da herrian. Bazkaldu ondoren Altsasura poteatzera joanen dira. Horrekin batera, Foru plazan kinto altsasuarra dantzan ikusiko dituz-

te. Parranda han egingen dute. Eta bi egunetako juergaren ondoren, kinto ziordiarrek ospakizuna domekan despedituko dute. Azken egunean "lasai" ibiliko dira: bazkaldu eta gutxi gehiago.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 4

ARBIZU Argia ematen duten emakumeak. Misio humanitarioa Gazan escape room-a.
17:00etatik 18:00etara, udalan.

IRURTZUN Santa Ageda koroak.
Aizpea Euskara Taldeak antolatuta.
18:00etan, plazan.

ARBIZU Argia ematen duten emakumeak. Hitzaldia eta mahai ingurua Palestinako errefuxiatu batekin.
18:00etatik 19:00etara, udalan.

ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko Gazte Asanbladaren 40. eta gaztetxearen 15. urteurrenak. Bakarrizketak: Joxe Aldasoro eta Mikel Bermejo.
18:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda: Xake txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ARBIZU Argia ematen duten emakumeak. Misio humanitarioa Gazan escape

room-a.
19:00etatik 20:00etara, udalan.

ALTSASU Lagun Onak elkarteak Santa Ageda koroak.
19:00etan, elkartetik.

ALTSASU Kukuerreka elkarteak Santa Ageda koroak.
19:00etan, elkartetik.

OLATZAGUTIA Oihan Vegaren emanaldia.
22:30ean, Barandi tabernan.

LARUNBATA 5

IRURTZUN Euskal Herriko XIII. Mus txapelketaren kanporaketa.
10:00etatik aurrera, Pikuxarren.

ALTSASU Gazte agenda: Neskak Santa Agedan dokumentalaren emanaldia.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 6

ALTSASU Altsasuko Mendigoizaleak taldearen ibilbidea. Andia mendizerra: Malkeska, Artxuerieta, Monasterios, Trinitatea, Caballero.
08:00etan, egoitzan.

ETXARRI ARANATZ Bertso saioa: Oihana Iguaran, Alaia Martin, Aitor Sarriegi, Eneko Lazkoz

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Mendiak 1976 gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 4: 19:00
Igandea 6: 19:30

El callejón de las almas perdidas gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 10: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

El espía honesto zineforum filmaren emanaldia
Igandea 6: 19:30

Una librería en París zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 10: 19:00

eta Julio Soto bertsolariak. Gai jartzailea: Saats Karasatorre.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 7

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

OSTEGUNA 10

ETXARRI ARANATZ Gizakunde.
18:00etan, plazan.



ARBIZU Argia ematen duten emakumeak. Noor erakusketa birtuala. Otsailaren 14ra arte. Liburutegian.



URDIAIN Etxepare Saria irabazi duten albumen azalen erakusketa. Nafarroako Gobernuak euskara zerbitzuek antolatuta. Ilibeltzaren 24tik otsailaren 11ra. Liburutegian.



ALTSASU Begirada ezberdin bat Unai Beroiz fotokazetariaren argazki erakusketa.

Pobreziaren eta bazterkeriaren kontrako Nafarroako sareak eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatuta.
Otsailaren 20ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINITZA

Bertso Udalekuetarako hezitzaileen izen ematea: Otsailaren 7tik 21era arte zabalik egongo da Bertsozale Elkartearen webgunean. Begiraleak, sukaldariak, zuzendariak eta begirale praktikak egiteko aukera dago, ardura bakoitzak bere izen emate orria izango du, kontuz. Amaiurren, Iratietan, Larraulen eta Zuhatzan izango dira egonaldiak, uztailean gaztatu dira. Informazio gehiago www.bertsozale.eus web orrian.

Salto! Gazte topaketetan begiraleak eta sukaldariak behar dira: Interesa dutenek beraien curriculuma martxoaren 4a baino lehen bidali beharko amasguna@uema.eus e-posta helbidera. Apirilaren 15erako hautatuei erabakia jakinaraziko zaie. UEMA-k kontratatuko ditu langile hauek.

Euskal Wikilarien Elkartearen langile bat behar dute 6 orduko lanaldia betetzeko. Proiektu honetan Nafarroan Wikimediana proiektuekin harremana duten kultur ekimenak landuko dituzte, eman izena hemen: bit.ly/3FXmPIL.

IKASTAROA

Irurtzunen Spinning ikastaroak: Ikasturteko bigarren lauhileko honetan izena eman nahi baduzu begiralearekin berretsi beharko duzu eskola ordutegietan. Ordutegia astelehen eta asteazkenetan 9:30ean, 19:00etan edo 20:00etan, edo astearte eta ostegunetan 19:30ean edo 20:30ean. Otsailaren 14tik maiatzaren 31ra arte izango dira klaseak. Astean bi egun 110 euro / astean saio bat 70 euro. Matrikularen dirukopurua Sedenaren kontu zbkian sartu behar da: ES30 2100 9141 1902 0007 1611.

IKASTAROA

Ehuyar Zientzia Azokaren 10. Edizioa: izena emateko epea zabalik otsailaren 28a arte, Ehuyar Zientzia Azokaren web orrian. 12-18 urte bitarteko gazteek eta beren irakasleei zientzia eta teknologia-proiektuak garatzeko gonbita luzatzen zaie, hala, beren proiektuen barnean, gazteek zientzia eta teknologiako benetako profesionalak ezagutuko dituzte, haiekin abenturak eta bizipenak partekatuko dituzte eta beren lanean bidelagun izango dituzte. 301 ikertzailek eman dute izena proiektuan parte hartzeko, eta gazte-taldeek haien laguntza jasoko dute beren proiektuak garatzeko. Ekainaren lehen asteburuan ospatuko da Ehuyar Zientzia Azokaren ekitaldi nagusia Bilboko Areatzako karia eta gazteek eginko lanak aurrez aurre ezagutzeko aukera izango da.

OHARRA

Odol emateak Irurtzunen: Otsailaren 10ean, 16:45etatik 20:30etara, www.adona.es/eu.
Salto! Gazte topaketetan izena emateko epea zabalik: Sakanan Arbizu eta Etxarri dira UEMA-ko kide, beraz, herri hauetako 14 - 18 (2044 eta 2007 artean jaiotakoak) urte bitarteko gazteek izena eman ahal dute martxoaren 31ra arte. Izena emateko 943 816 699 fñora deitu edo hezuntza@uema.eus helbidera idatzi. Informazio gehiago www.uema.eus web orrian.

Elkartasun bilketa martxan: Etxean soberan eta egoera onean dituzun arropa eta bestelakoei Elkartasunezko bigarren au-

kera eman! Ostiralero, apirilaren 8ra arte, 10:00etatik 13:00etara Altsasuko Erku-den kaleko 8. zbkian (lehenengo SD Altsasu taberna zen lokalean) jasoko dizkizute eramaten dituzun gauzak. Jasotako guztiarekin antolatzaileek (Sakana Harrera Haranek eta Mank-eko Anitzartean zerbitzuak) Elkartasun azoka egingen dute.

Aralarko santutegi ondoan dagoen eraikina (Lakuntzetxe) zaharberriko proiektuan laguntzeko: ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

Makilen erritmora, kantari

Kantu eskeko ohitura berrituko dute Sakanako hainbat herritan gaur, Santa Ageda bezperan. Baserriarrez jantzi eta makila aldean dutela, hura lurraren kontra joz erritmoa markatu eta kantari ibiliko dira. Irurtzunen, 18:00etan, plazan jarri du hitzordua Aizpea euskara taldeak Santa Ageda koplak kantatzeko. Irañetan 18:30ean da hitzordua elkartearen parean. Handik herrian barnako kalejira abiatuko dute. Koplakantari herria zeharkatu ondoren, despeditzeko elkartean abeslari gutziendako txistorra eta urdaia izanen dira.

Lakuntzan plazan elkartuko dira, 17:00etan. Pandemia dela eta, aurrekoetan ez bezala ariko dira aurten. Ez dira etxex etxe kantuan ibiliko. Horren ordez, herriko

puntu jakin batzuetara joanen dira, han abesteko. Ondoren, abeslari guztien gozagarri, txokolate jana izanen da. Eguraldiak lagun-tzen badu plazan banatuko da, bestela, kultur etxean. **Lizarragabengoan** Santa Agedaren omeneko koplak abesteko hitzordua 20:00etan jarri dute. Iturmendin Santa Agedari kantatu nahi diotenek plazan dute hitzordua. Lehenik, 18:30ean, eztarriak berotzeko txokolate jana izanen da eta, ondoren, kalez kale koplakantari ariko dira haur, gazte eta heldu.

Altsasun bi elkartetako kideak ariko dira gaur koplakantari. Bi elkartetean atzo egin zituzten azken entseguak. Lagun Onak elkartekoak haien egoitzatik abiatuko dira 19:00etan. Eta Kukuerreka kantu poteo taldeak, berriz, Baratzebide plaza izanen dute kantu errondaren abiapuntua, 19:00etan ere.

ESKELA



Zendutako gure kintoen oroimenez

Altsasuko 81eko kintoak

ESKELA



Jose Miguel Arbizu Lizarraga

Beti egongo zara gure artean



Eusko Alkartasuna eta Etxarriko Alkartasuna

ESKELA

Inés Ulaiar

(2022ko otsailaren 1ean hil zen, 99 urte zituela)

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak



Maiz-Ulaiar familia

ESKELA


Rodolfo Balda Irurzun

Aita, aittuna:
zuk ereindakoa
guregan hazi eta biziko da.

Etxekoak

ESKELA

Arantxa Urcelai Andueza



"Eskerrik asko nortasunez bizitzen irakasteagatik, bai une zorionsuetan baita gaixotasunean ere."

ESKELA

Jose Mari Nuñez Fernandez




Ezin izango genuke testu batean laburtu eman diguzun guztia.

Mila esker sortu duzun familiagatik, dena zor dizugu eta ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Maite zaitugu

ESKERTZA

Jose Mari Nuñez Fernandez




Mila esker momentu zail hauetan familiarengandik gertu egon zareten guztioi, bihotzez.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

JAIOTZAK

- **Xua Anda Igoa**, ilbeltzaren 26an Etxarri Aranatzen

HERIOTZAK

- **Arantxa Urcelai Andueza**, ilbeltzaren 27an Lakuntzan
- **Antxon Gorriti Zubieta**, ilbeltzaren 28an Uharte Arakilen
- **Rodolfo Demetrio Balda Irurzun**, ilbeltzaren 29an Irurtzunen
- **Victorino Anda Goikoetxea**, ilbeltzaren 30ean Bakaikun
- **Pedro Beraza Ocaña**, ilbeltzaren 31n Uharte Arakilen
- **Jose Miguel Arbizu Lizarraga**, ilbeltzaren 31n Etxarri Aranatzen
- **Inés Ulaiar Iregi**, otsailaren 1ean Etxarri Aranatzen
- **Elena Echavarri Albiztur**, otsailaren 1ean Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Roberto Martil kapitaina, Burelaren kontrako partidan. XOTA

Imanol Arregik uste du garaipen "oso garrantzitsua" lortu dutela

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna seigarren postuan dago, Espainiako Kopa jokatu ahal izateko postuetan

Osasuna Magna Xota Europako Areto Futbol Txapelketako geldialdi luzetik txapelketara itzuli da. Astearrean ligako hamabigarren jardunaldian atzeratutako partida jokatu zuen talde berdeak Galizian, Burelaren kontra. Bi taldeek puntu faltan zeuden: sailkapenean azkena izaki, jaitsierako postuetatik ateratzeko puntuatu beharrean zegoen Burela. Osasuna Magna Xotak, sailkapenean hamargarren izaki, Espainiako Kopa jokatu ahal izateko sailkapeneko lehen zortzi postuetan sailkatzeko puntuatu beharra zuen.

Osasuna Magna Xotak 2 eta 3 irabaztea lortu zuen partida oso gorabeheratsuan. Belauneko lesioa gaindituta, lehen partida jokatu zuen Fabinho (2) eta Roberto Martil kapitaina izan ziren golegileak. Sufritutako garaipena izan zen, baina hiru puntu horiei esker Ligako sailkapenean seigarren da talde irurtzundarra, Espainiako Kopa jokatu ahal izateko postuetan (lehen itzulia bukatuta sailkatutako lehen zortzi taldeek jokatzen dute Kopa).

Imanol: "ez gara ongi aritu"

Lortutako garaipena "oso garrantzitsua" zela nabarmendu zuen Imanol Arregik, baina entrenatzaile irurtzundarra ez zegoen kontentua bere taldeak egindako partidarekin. "Ez dugu partida ona egin. Baloiarekin jokoan ez gara ongi aritu. Paseetan akats asko egin ditugu, eta Burelako gol aukera gehienak gure baloi galeren ondotik

iritsi dira. Burelak hiruzpalau aukera oso argiak izan ditu, eta Asier gure atezainak salbatu gaitu, argi eta garbi. Bigarren zatian partida parekatu da eta talde lan ona egin dugu, sakrifizio handikoa. Hala ere, egin dugun jokoak ez zait gustatu. Geldialdi luze baten ondotik gaude bueltan, lehiaketak ez du entrenamenduekin zerikusirik eta gaur ez gara ongi aritu" azaldu zuen teknikariak.

Otsaila bero dator

Lehen Mailako liderra Barça da (37 puntu), eta Xota seigarren postura igo da (19 puntu). Ligako hamabosgarren jardunaldia otsaileko bigarren asteburuan jokatuko da. Otsailaren 13an Osasuna Magna Xotak Inter Movistar taldea hartuko du Anaitasunan. Ligako ohiko jardunaldiez gain, Xotak bi partida atzeratu ditu, otsailean jokatuko dituenak. Hamahirugarren jardunaldian Industrias Santa Colomarekin jokatu beharra zuen partida otsailaren 22an jokatuko du, eta hamalagarren jardunaldian Betis Futsalen kontra jokatu beharreko lehia, otsailaren 27an. Hortaz, liga itzulera gozoa izango da.

Escribanok berri du

Tony Escribanok beste hiru denboraldirako sinatu du Xotarekin. Bi aldeak "oso pozik" daude. "Klubarendako albiste oso ona da, Tony taldearendako jokalaria garrantzitsua baita" adierazi du Imanol Arregik.



Txakur krosetan emakume askok hartu zuten parte.

Etxekoak podiumean

TXAKUR KROSA Etxarri Aranazko Txakurkrosak 128 partaide bildu zituen, tartean lau sakandar. Israel Arbizu hirugarren sailkatu zen txakur krosetan, Harriet Artieda bigarren juniorra izan zen, eta Juan Bautista Urtasun patinetan lehena izan zen

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ

Hotz handiarekin -termometroak 0 azpitik 4,5 gradu jasotzen zituen goizeko bederatzietan-, baina eguzkia lagun jokatu zen Triku Trail taldeak Euskanikros elkarrearen laguntzarekin eta hainbat babesleren sostenguekin antolatutako Etxarri Aranazko Txakurkrosa. Uste baino partaidetza gehiago izan zuen probak. "Aurreko igandean 79 pertsona zeuden izena emanda, eta azken lau egunetan beste 49 izena emate izan genituen. Guztira 128 pertsona animatu dira, espero baino gehiago, tartean emakume asko, eta pozik gaude. Ibilbidea ikusgarri dago eta ea goiz polita pasatzen dugun" zioen Etxarri Aranazko Txakurkrosako arduradun nagusiak, Igor Artieda Galdeanok, guztia prestatzeko handik hona bueltaka zebilela.

Patin eta bikejoring modalitateetan parte hartu zuten 24 partaideek 9:30etik aurrera hartu zuten irteera, banaka, baina Etxarri Aranazko kanpinean

lehenago hasi zen mugimendua, partaideek eta txakurrek albaritza eta material kontrola gaitu behar izan zutelako. "Hau hotza..." entzuten zen, guztia izoztuta baitzegoen, txuri-txuri. Mikrofonotik eguraldia lasterketarako primerakoa zela nabarmendu zuen Artiedak. "Txakurrendako batez ere, ezin hobe. Azken asteko izotzek ibilbidea lehortu dute eta, hortaz, gaur hegan egiteko aukera izango duzue. Disfrutatu" animatu zituen partaideak, irribarrez, probei hasiera eman baino lehen. Txomin Huartek egin zituen aurkezpen lanak eta irteera gunean Asier Beltza eta Igor Artieda ibili ziren irteera ematen. Triku Traileko gainontzeko kide eta boluntarioak ibilbidea ixten, markatzen eta bestelako lanak egiten aritu ziren.

Hegan egin zuten

Juan Bautista Urtasun Perezek nahikoa lan zuen bere bi txakurrrak lasaitzen. Biak txakur gazteak, euren lehen proba zen, eta

nabaritzen zitzaien. Patinetan lehiatu ziren, eta irteera ikusgarria egin zuen urdiaindarrak. Beranduago abiatu zen Igor Lanz Rapun satrustegierra, bikejoring edo bizikleta modalitatean ibilbidea osatzeko prest. Sei kilometroko ibilbide polita zuten aurretik, Beheko Basoan, Haritz Zaharren Ibilbidean barna. Ibilbide oso teknikoan, txakurren eta euren nagusien arteko elkar ulertzea primerakoa izan zen, ibilbidea ziztu bizian osatu baitzuten gehienek.

Bikejoring eta patin modalitateak kontuan hartuta, ibilbidea osatzeko 12 minutu nahiko izan zituen azkarrenak, Iosu Varona Lazkoz donostiarrak (12:17, bikejoringa). Poz-pozik iritsi zen helmugara. 16 segundo atera zizkion Ekaitz Erauskin hondarribitarrari (12:33, bikejoringa) eta 1:59 minutu hirugarrenari, Daniel Arenas zeauritarrari (14:16). Juan Bautista Urtasun seigarren sailkatu zen sailkapen orokorrean, eta patinen modalitateetan lehena izan zen (15:06).

Primerako lasterketa, hain zuzen ere. Igor Lanz satrustegiarrak eta bere txakurrak ibilbidea lasaigo egitea erabaki zuten eta 21. postuan sartu ziren helmugara (23:15).

Txakur krosetako zalaparta

Ondoren eman zitzaion hasiera txakur kros modalitateari, hau da, korrikalaria bere txakurrari lotuta korrika egiteko probari. 100 korrikalarik hartu zuten irteera, eta nabarmentzekoa da emakume askok parte hartu zutela. Korrikalariak hiruunaka abiatu ziren, eta txakurrek irteeran sortutako zalaparta handia izan zen. Txakurrak irteera puntuan eustea zaila egin zitzaizen askori. Bi sakandar aritu ziren, biaketzarriarrak eta biak proban mustu zirenak. Israel Arbizu Alberto zen bata, eta Harriet Artieda Diaz gaztea, bestea.

Israel Arbizu maila handiko korrikalaria da, eta faboritoen artean ikusten zuten askok. Etxarriarrarendako bere lehen aldian txakur krosetan, eta txakurra urduriegi jarriko ote zitzaion, beste txakurrekiko tentsio guzueetan kasu egingo ote zion, horiek ziren bere kezka nagusiak. Bere lehen lasterketan oso ongi aritu zen, zirkuituko 6 kilometroak osatuta hirugarren sailkatu baitzen (19:11), Zaratamoko Edorta Zubiaurre txapeldunetik minutu pasara (18:02). Santo Domingo de la Calzadako Roberto Romo izan zen bigarren (18:31).

Harriet Artieda lehen aldiz aritu zen txakur krosetan; ez, ordea, Luna bere txakurra. Aitarekin, Igor Artiedarekin, makina bat lasterketa egin izan ditu Lunak. Harrietek aitak animatuta eman zuen izena proban. "Animatuta edo derrigortuta, ez dakit, baina gustura" zihoen, irribarrez. Lasterketa polita eginda, 90. sailkatu zen (32:56), probako bigarren juniorra.

Bukaeran sari ematea izan zen, eta auzatea. Partaideak eta antolatzaileak, guztiak kontent. "Jendea oso pozik dago, hori esan digute. Lagun arteko giro aparta egon da" nabarmendu zuen Igor Artiedak.

"JENDEA OSO POZIK DAGO, HORI ESAN DIGUTE. GIRO APARTA EGON DA"
IGOR ARTIEDA



Juan Bautista Urtasun, helmugara iristen.



Israel Arbizu, kontrola pasatzen.



Proba bukatzerakoan txakurra zorientzen.



Harriet Artieda, podiumean. TRIKU TRAIL



Txakurrek eta korrikalariak ziztu bizian egin zuten irteera.



Igor Lanz, irteera egiteko prest.



Israel Arbizu, erdian, lasterketa mustutzeko zain, alboan beste bi partaide dituela.

"Lasoren arrakastaren parte sentitzen gara gertukoak"

EGOITZ CARRION NINATANTA PRESTATZAILE FISIKOA

PILOTA 28 urteko irurtzundarra Unai Lasoren prestatzaile fisikoa da, 2020an Baikorekin berri ez, eta afizionatuen mailara jaitsi zenetik. Orduetik, gorenera iritsi dira

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN
Azken urtean zeresan handia eman du Unai Laso Lizasok. 2020an ez zuen Baikorekin berri eta afizionatuen mailara jaitsi zen. Afizionatuetan jokatutako guztia irabazi zuen, Baikoko pilotarien greba tartean zela, eta 2021ean atzera ere Baikorekin profesional hasi eta gero, egungo izen handietako bat da. Bere atzean egunetik egunera geroz eta ezagunago den Egoitz Carrion Ninatanta prestatzaile fisikoa irurtzundarra dago. **Ez dakit ohitu zaren zure izena komunikabideetan Unai Lasorenari lotuta agertzeraz.**

Unai Laso oso mutiko irekia da. Askotan komunikabideetan nire izena aipatu izan du eta asko eskertzen diot. Lasoren atzean jende asko dago, tartean ni neu, eta etapa honetaz asko disfrutatu ari naiz.

Modako pilotariaren arrakastaren arduradunetako bat zarela diote. Unai moda bat sortzeko gaitasuna duen pertsona dela uste dut. Ez soilik pilotari gisa, oso pilotari ona baita. Bere egunerokoan ere langilea da, berak beti hobetzeko bidea hartu nahi izaten du eta horrek asko lagundu izan dio. Nigan konfiantza izan zuen, nik berarengan konfiantza handia dut, eta elkarren artean sortutako lotura hori handia da. Alde horretatik ni bere arrakastaren parte sentitzen naiz, beste jende askorekin batera, haiek

ere asko lagundu baitiote, arrakastaren ardura nagusia berea dela argi dagoen arren.

Prestatzaile fisikoa zara. Non trebatu zinen?

Gasteizen Jarduera Fisiko eta Kirolaren Zientzietako gradua ikasi nuen eta Madrilen Goi Errendimenduko Master bat egin nuen Espainiako Olinpiar Batzordean. Hura bukatuta, Irurtzuneran itzuli nintzen eta kirol kudeaketa egiten duen Urtats enpresan hasi nintzen jardunean, gimnasio batean lanean eta aldi berean jarduera gidatu batzuk eskaintzen. Oraindik ere segitzen dut. Urtats enpresako koordinatzailea naiz. Bestalde, Aitor Alduntzin pilotari afizionatuak bere prestakuntza fisikoa gidatzeko aukera eman zidan. Alduntzin Unai Lasoren laguna da, eta garai hartan Lasoren arazoa gertatu zen: enpresatik kanpo geratu zen, eta aldaketa bat ari zen bilatzen, bai arlo fisikoan eta baita arlo psikologikoan ere, egoerari buelta eman nahian. Aitor Alduntzinek gurekin entrenatzeko aukera eskaini zion eta halaxe hasi ginen, gaur egunera arte. Ororbiako gimnasioan egiten dugu pilotarien taldeko prestakuntza fisikoa.

Unai Laso bere bizitzako une zailenetako batean ezagutu zenuen. Baikorekin kontratua berri ez, eta afizionatuen mailara jaitsi zenean hasi zen zurekin lanean. Eta begira non dagoen.

Nik asko ikasi dut egoera honetatik, bai prestatzaile fisiko gisa, bai goi errendimenduko kirolari batekin izaten ahal duzun harreman horretatik. Unai sekulako lana egin du. Egunero bere egoera hobetzeko zerbait bilatzen zuen. Oso pertsona alaia da, alaitasuna kutsatu egiten duen horietakoa: bere ondoan beti giro ona egoten da. Elkarrekin lan asko egin dugu, eta gure aisialdia ere partekatu dugu. Prestatzaile fisiko eta kirolari izatetik aparte, lagunak gara.

Tarteka bere botilleroa ere bazara. Bere botilleroa, berez, Jon Mariezcurrrena da, baina berak ezin zituenetan niri esan izan dit. Elkarrekin oso kimika ona dugu. Etapa hau asko disfrutatzen ari naiz eta honek segi dezala. **Nola bizi da pilota partida bat botilleroaren aulkian jarrita? Tentsio handia izango da.**

Tentsioa dago, partidari sartuta baitzaude, baina nik okerrago pasatzen dut harmailetan eseri botilleroaren aulkitik baino. Partidari horren sartuta zaude, ez zarela gainontzekoaz oharitzen. Egoera txarra bada, egoerari nola buelta eman ari zara aztertzen, eta egoera ona bada, hala segi dezala nahi duzu besterik. **Botilleroak kirol prestatzaile lana baino, alde psikologikoa lantzen du gehiago.**

Bai, eta horregatik uste dut Unai Lasok jotzen duela nigan Mariezcurrrenak ezin duenean.



Egoitz Carrion Ninatanta prestatzailea, Ororbiako gimnasioan. UTZITAKOA

"UNAIREN EGOERATIK ASKO IKASI DUT, PRESTATZAILE GISA ETA HARREMANE DAGOKIONEZ"

"UNAİK BERE PRESTAKUNTZA FISIKOA EGITEKO GERTUTASUN HORI BEHAR DU"



Harreman bikaina dutela agerikoa da. UTZITAKOA



Egunerokoan nirekin dago eta arlo psikologikoa asko landu izan dugu. Horrek fisikoki ere eragin positiboa izan du.

Sare sozialetan entrenamenduen bideoak igotzen dituzue eta entrenamendu oso gogorrak dirudite.

Pilotarien taldean zazpi dira. Profesionala soilik Unai da; besteak afizionatuak dira. Astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan entrenatzen dugu, ordu eta erdi inguru. Entrenamendu indartsuak dira, planifikazio jakin batekin, oso espezifikoak, txapelketa edo dataren arabera gogoragoak edo suabeagoak. Pilotari bakoitzaren beharretara eta pilotari bakoitzak prestakuntza fisikoan duen esperientziara moldatu beharra duzu. Gogor entrenatzen dute, eta gustatzen zaie. Euren artean oso giro ona dute. Batzuetan pikatu egiten dira: ea nork mugituko duen kilo gehiago, nor izango azkarragoa... ongi pasatzen dugu.

Unai Laso entrenatzen duzunetik jende gehiagok jotzen du zurera?

Jende askok galdetu egiten du. Ororbian aritzen gara, eta jasotzen dugun tratua eskertzen dugu: oso gustura gaude. Eta haiek jendea bertara eraman izana eskertzen dute.

Zure lanak zer du ona?

Gauza asko. Tartean, mundu ezberdin bat ezagutu dut, pilota profesionalarena. Barrutik ikusita gauzak oso ezberdinak dira, barruan dagoen tentsio hori nabaritzen duzu. Horren ezagunak diren pilotari handi horien alde pertsonala ezagutzea oso polita izan da.

Oso jatorrak dira, eta umilak.

Nik uste dut hori kirolarekin berarekin, esku pilotarekin, lotutako zerbait dela. Pilotariak partida baino lehen elkarrekin aldatzen dira, takoak elkarrekin jartzen dituzte, elkarrekin hitz egiten egoten dira. Partida hasi baino lehenago beste tentsio puntu bat sumatzen da, eta bakoitza bere prestatzaile, botillero edo konfiantzazko jendearekin egoten da. Baina ordura arte, eta baita partida bukatu eta gero, pasatu dena pasatuta, elkarrekin dutxatzen dira, takoak kendu... Pilota oso kirol sana da, eta horregatik ea mantentzen dugun.

Eta zure lanaren alderik okerrenera?

Horren positiboak ez diren aldeak badaude, bidean zailtasunak izaten dituzu, baina horiek ere beharrezkoak ikusten ditut. Adibidez, Unairekin oraindik ez

zaigu beheraldi edo krisi garrantzitsu bat izatea tokatu. Zenbait beheraldi psikologiko izan ditu, eta bera horrela dagoenean zuk ere egoera hori etxera eramaten duzu. Ohera sartu, eta egoera horri nola buelta eman pentsatzen aritzen zara. Zailtasunak dira, baina gure lanbidean beharrezkoak.

Laso eta biok lagunak zaretela agerikoa da. Zure bezero guztiekin konplizitate eta inplikazio hori izatea ezinbestekoa al da?

Unairekin izan dudana inplikazioa oso handia da nire aldetik, baina ez dut uste bezero guztiekin hala izatea beharrezkoa izan behar duenik. Unai bere prestakuntza fisikoa aurrera eramateko gertutasun hori behar du, ez soilik nirekin, entrenamendu talde guztiarekin baizik. Bere familiarekin, lagunekin, ezagunekin... oso gertukoa da, edozeinekin lagun ona. Gure harremana horrela izan da, ongi atera zaigu eta horrela segi dezala, baina beste kirolari batzuekin harremana ezberdina da, profesionalagoa eta teknikoagoa. Askok ez dute alde psikologiko horren horrenbesterako beharrik.

Gustatuko litzatezuke futbolari, tenis jokalaria, edo bestelako izar handien prestatzailea izatea?

Erronka gisa, bai. Futbola oso gustuko dut. Errealeko bazkidea naiz. Futboleko prestakuntza nola izango litzatekeen ezagutzeke jakin mina badut. Proiektu txiki bat dugu buruan, ea ongi ateratzen den. Futbolak erakartzen nau, nahiz eta kirol ezberdina izan. Giroa ere oso ezberdina da. Alde horretatik pilota politagoa da, baina futbolak behar dituen eskakizun fisikoak gustuko ditut: entrenatzeko modua, futbolerako prestakuntza fisikoa... Hori ere iritsiko dela uste dut, baina pilotan oso gustura nago eta ez dut utzi nahi.

BINAKAKOIA

Binakako Txapelketan nola ikusten duzu Laso?

Ongi ikusten dut, batez ere jarrerara aldetik. Eta joko aldetik ere. Hain luzea den txapelketa batean gorabeherak izaten dira, baina nik uste partida guztietan eman duen maila nahiko egonkorra dela, maila ona. Aurrelari onenetakoen artean sartzen ari da. Atzera ere profesionaletan hasi zenetik ez da urte bat pasa, baina paliza handia hartzen ari da. Partida asko jokatu ditu, exi-

Sakandarrak nola ikusten dituzu?



Zabaleta. ASPE

Jose Javier Zabaleta


Josek jaiotzetik du pilotan erraz eta gainera elegante jokatzeko gaitasun hori. Duen jokoa nik uste ez dela orain arte ikusi, edo nik behintzat, ditudan urtetan ez dut ikusi. Zaila izango da berriz bera bezalakorik ikustea.



Ezkurdia. ASPE

Joseba Ezkurdia

Pilotari oso ona da, niri pilotarietarik osoenetakoa iruditzen zait, ikuskizuna ematen duena. Binakakoan ez ditu puntu asko, baina joko aldetik oso ongi ikusten dut. Txapelen borrokan beti kontuan izateko pilotaria da.



Martija. ASPE

Julen Martija

Martija lagun mina dut. Oso gaztea da. Beheraldi txiki bat izan du, eskutako minek ez diotelako lagundu, baina ongi ikusten dut, zentratuago, lasaiago, goi mailan egoteko beharrezkoa den joko puntu horrekin. Onena opa diot.



Bakaikoa. BAIKO

Joanes Bakaikoa

Lesio baten bueltatik fisikoki eta joko aldetik nola bueltatu den harritu nau. Oso ongi ari da. Joko aldetik pauso bat aurrera eman du, eta oraindik ere beste bat emateko gai dela uste dut. Binakakoan aurrelari lana oso ongi egiten ari da.

jentzia handikoak. Hala ere, Binakakoa mentalki ongi eramaten ari da, beste lasaitasun batekin.

Sailkapeneko lehen bi postuetan nor sailkatuko diren esatera auzartuko zinateke?

"ZIORDIARRAK LASOREN JARRAITZAILE SUTSUENETAKOAK DIRELA ESANGO NUKE"

FUTBOLEKO PRESTAKUNTZA NOLA IZANGO LITZATEKEEN EZAGUTZEKO JAKIN MINA BADUT"

Nire ustez Elezkano eta Zabaleta dira lehen bi postuetan sailkatzeko faborito nagusiak, eta beste bikoa Laso eta Imaz izatea nahiko nuke. Bai, haiek izateko konfiantza dut.

Txapelketa oso-oso estu dago.

Bai, oso txapelketa polita izaten ari da. Goiko postuetan ere ez dago alderik, eta emozio horrek pilotari asko ematen dio.

Ziordiar askok jarraitzen dute Laso.

Bai, bere garaian harreman ona egin zuten. Jende oso alai da, oso jatorrak, eta beraiekin egotean gustura sentitzen zara, giro onean. Unai haiekin denbora konpartitu nahi izatea guztiz normala iruditzen zait. Bere jarraitzaile sutsuenetakoak direla esango nuke, eta horrek badu meritua, azkenean denbora delako, dirua, bidaiak... Unai ere hori eskertzen du.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 4. JARDUNALDIKO EMAITZA
Lagun Artea - Aoiz **1-3**

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA
1 Zaramonza **32**
9 Lagun Artea **22**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
16:00 Univ. Navarra - Lagun Artea (Univ.)

Lagun Artearen aukera

Aoizen kontra galdu eta gero, bolada ona berreskuratu nahi du Lagun Artea.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

17. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Berriozar **0-0**

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA
1 Mulier **48**
10 Altsasu **1**

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN
12:15 Amigo - Altsasu (Amigo)

Altsasuk Amigó du aurkari

Emakumezkoen maila autonomikoko lehen faseko azken partida dago jokoan.

FUTBOL PREFERENTEA

19. JARDUNALDIKO EMAITZA
Bidezarra - Etxarri Aranatz **1-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA
1 Injerto **46**
14 Etxarri Aranatz **16**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
16:15 Etxarri - Arenas (San Donato)

Etxarri, hiru puntuak eustera

Bidezarraren kontra ez zuen galtzea merezi izan; ea Arenasen kontra nola dabilen.

FUTBOL ERREGIONALA

17. JARDUNALDIKO EMAITZA
Berriozar - Altsasu **2-7**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA
1 Aurrera **41**
3 Altsasu **34**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN
12:30 Altsasu - Arrotxapea (Dantzaleku)

Altsasuk Arrotxapea hartuko du

Arrotxapearen kontrako partidari Altsasuk garaipenaren bidean segi nahi du.

Ezkurdia-Tolosaren enegarren borroka

PILOTA Aspekoak Laso eta Imaz irabazi beharrean daude Binakako finalerdietarako play-offetara sailkatzeko aukera izateko, interes handia piztu duen lehian. Altuna-Martijak eta Elezkano-Zabaletak zortzigarren puntua nahi dute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Aspaldiko Binakako Txapelketa estu eta lehiatuenean gaude. Lau bikote daude sailkapenaren buruan zarpina puntutara berdinduta: Irribarria-Rezusta lider berriak, Laso-Imaz, Elezkano II.a-Zabaleta eta Altuna III.a-Martija. Peña II.ak eta Albisuk bost puntu dituzte, Urrutikoe-txea-Aranguren eta Jaka-Mariekurrena II.ak launa puntu, eta Ezkurdia-Tolosak hiru puntu. Beraz, txapelketako hasierako ligaxka despeditzeko hiru jardunaldiren faltan, guztia dago erabakitzeko. Bai zuzenera finalerdietara sailkatuko diren lehen bi postuak, eta baita finalerdietako play-offetarako sailkatuko diren lau postuak. Eta bikote guztiek dute aukera bietakoren batean sailkatzeko.

Bizirik eta gogoz

Ezkurdia eta Tolosa pozik daude aurreko asteburuan Peña II.aren eta Albisuren kontra hil ala bi-



Ezkurdiak eta Tolosak larunbatean aritu ziren bezala jarraitu nahi dute. IÑAKI PORTO

ziko garaipena lortu eta gero. Seigarren postua garaipen bakkerra dute, eta aurretik beste hiru final dituzte. Lehena larunbatean jokatu dute, Elezkano eta Zabaleta irabaztetik sailkapenaren goialdean dauden La-

soren eta Imazen kontra. Larunbatean Labriten jokatu den partidak ikusmin asko piztu du, bi bikoak une oso onean iritsi direlako, Laso eta Imaz bereziki, baina aurreko astean Ezkurdia onenak eta Tolosak erakutsitakoa

kontuan hartuta, borroka handia espero da Bomboneran. "Bizirik gaude. Ilusioa piztu zaigu eta aukeraren bat dagoen bitartean borrokatuko gara" egin du abisua aurrelari arbizuarrak.

Altuna eta Martija sasoi betean daude, konfiantzan eta bolada onean. Gaur, ostirala, Urrutikoe-txea eta Aranguren izango dituzte aurkari Gernikan. Zortzigarren puntua lortzea da lehengo lehian jarraitzeko, eta arnas egiten jarraitzeko bosgarren puntua lortu nahi dute bigarrenek. Altuna eta Martija dira favoritoak, baina puntu preziatua nork lortuko duen ikusteko dago.

Elezkano eta Zabaleta ez daude bere onenean. Txapelketa hasiera bikaina egin eta gero, hiru partida galdu dituzte jarraian, eta baita sailkapeneko lehen postua ere. Nolanahi ere, bolada txarrari buelta emateko konfiantza dute. Astelehenean, Tolosan, Ezkurdia eta Tolosaren kontra galtzetik datozen Peña eta Albisu dituzte aurkari, eta lehia estua espero da.

Promozioko Binakakoan, Joanes Bakaikoak eta Iker Elizegik lider jarraitzen dute (9 puntu). Azkeneko jardunaldian Arteaga II.ak Bakaikoa ordezkatu zuen eta 22 eta 16 galdu zuten Victorren eta Gaskueren kontra. Astelehenean, Tolosako jaialdia zabaltzen duen partidari, 5 puntu dituzten Zabala eta O. Etxeberria izanen dituzte aurkari.



OSASUNA

Endika Irigoien, UD Melillara

FUTBOLA UD Melilla da Endika Irigoien Bravo urdiandarraren talde berria denboraldia bukatu arte. Iaz Osasuna Promesas taldeetik atera zenetik, talderik gabe zegoen 25 urteko hegalek ezkerria. Osasuna Promesasen 133 partida jokatu zituen Irigoienek, eta Jagoba Arrasaterekin Osasuna talde nagusian debutatu zuen, Errege Kopako partidaren batean.



BEASAIN KE

Aitor Lorea, Beasainera

FUTBOLA Beasain KE taldeak jokalaria berria aurkeztu du: 24 urteko Aitor Lorea Vergara olaztiarra, hegaleko erdilari-atzelaria. Osasuna jubeniletan, Osasuna Promesetan eta Osasuna talde nagusian aritu izan zen Lorea, eta Real Oviedo B eta Calahorra B taldeetan ibili ondoren iritsi da Espainiako Futbol Federazioko Hirugarren mailan lehiatzen den Beasainera.



Ojos Violeta taldea kontzertu batean. UTZITAKOIA

Musikak adierazten du hitzekin esan ezin dena

Amaia eta Maite Azcona Garcia ahizpek Ojos Violeta taldea sortu dute. Abestien bidez genero indarkeriaren eta ahizpatasunaren inguruan hitz egiten dute. Jendea "pentsaraztea" nahi dute. Otsailaren 13an kontzertua eskainiko dute Irurtzunen

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Proiektua intimitatean hasi zuela esan du Amaia Azcona Garcia antsoindarrak eta Ojos Violeta taldeko letren egileak: "Etxean abestiak konposatzen hasi nintzen, jakin gabe ezer konposatzeko aukera nuenik ere". Hitzekin gauzak adieraztea eta jendeari "bere gauzak" kontatzea kostatzen zaiola aitortu du, "eta musika izan zen hori egiteko modu bat". Barrundiak hustutzeko modu bat. Gurasoek ukelelea oparitu zioten, eta haren laguntzaren bidez bikotekidearekin izandako harreman "beldurgarriaren" inguruako abestiak sortzen hasi zen. "Bazirudien denak bat egiten zuela".

Konposatzea "giltzarria" izan zen. "Terapia" bat. "Ni hasieran ez nintzen kontziente gertatzen ari zitzaidanaz, uste bainuen beste gertatzen zitzaizela ere. Normalizatzen joan nintzen. Amesgaizto bat zen". Kontsumitzaera iritsi zela aitortu du Azconak. Musika eta abestiak sortzea "hitz egitea bezala" zen.

Ez zen besteei kontatzen ausartzen, "ez nuen nire burua gai ikusten kontatzeko", baina musikaren bidez "errazagoa" zen. Otsailaren 13an, igandea, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean kontzertua eskainiko du Ojos Violeta taldeak.

Ahizpatasuna

Intimitatean sortutako abestiak lagun talde batean elkar banatzen hasi zen: "Abestiak publiko egin behar nituela esaten zidaten, berdinagatik pasatzen ari ziren beste emakume batzuei lagun niezaiekeela". Lagun talde horretan bere ahizpa bikia Maite zegoen, eta zeharkako txirula jotzen zuenez, abestietan txirula sartzen saiatu ziren. Ahizpa abesten ere hasi zen, "eta ahotsek

OTSAILAREN 13AN OJOS VIOLETA TALDEAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU, IRURTZUNEN

bat egiten zuten". Proiektua sortzen joan zen. Biek erdi mailako musika ikasketak egin dituzte, Amaiak biolontxelo jotzen du eta Maitek zeharkako txirula, baina ez zuten musika ikasketekin jarraitu. "Baina, azkenean, gustatzen zaizuna ateratzen da". Hala ere, biak irakasleak dira eta "noizean behin" eskoletara instrumentuekin joaten ziren. Ojos Violeta taldearekin ere ikastetxetan emanaldiak egiten dituzte, eta oso bereziak direla esan du Amaiak: "Gaztetxoek galderak egiten dituzte, eta pentsatu nahi dut zerbaitekin geratu direla. Hori da itxaropena".

Aire da Amaiak sortu zuen lehenengo abestia, eta harreman "beldurgarri" horretan gertatu zitzaiona kontatzen du. "Lehenengoak ildo horretan doaz: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak, horretatik pasa zarela identifikatzen duzunean, genero indarkeriaz...". Ondoren, ahizpatasuna, lagun taldearen laguntza eta abarre-

ko gai buruz idazten hasi zen. "Gero abesti goxoagoak daude, beste ikuspuntu batetik sortuta. Hori guztia pasatu ondoren sortutakoak". Bere garapena ikusten da.

Ojos Violeta taldeak lantzen dituen gaiak kontuan hartuta, izenak emakumearen kolorea izan behar zuela nahiko argi zuten. Lagun batek jarri zien izena: "Kadizera bisitatzera joan ginen, eta Itziarrek esan zuen ez ginela hortik joango sortzen ari zen taldearen izena lortu arte. Poteoan geundela atera zitzaion, esan zuelako gure begiek asko transmititzen dutela".

Publiko egiten

"Kanpotik analizatzen dudanean, gehien bat lehenengo kontzertuak eskaintzen hasi ginenean, oso emoziozkoak ziren, baina beste alde batetik asko irekitzen ari nintzen eta nire buruari galdetzen nion ea zer ari nintzen egiten. Ez nekien errepikatu nahi nuen ere". Jendearen aurrean "hainbeste irekitzea" gogorra dela esan du Azconak. Emanaldiak ematen jarraitu zuten, eta dagoeneko hogeitabat eskaini dituzte. Hasieran tabernetan emanaldi "informalak" ematen hasi ziren. "Udaleko zinegotzi batek jarraitzen gintuen, egiten genuenaren sinisten zuen eta gustatzen zitzaion, eta kontzertu handiago bat eskaintzeko proposatu zigun". Hasieran beldurra zuten, "ez genuelako espero horrelako zer-

bait egin genezakeenik". Javier Vicuña Monasterios gitarra joleari laguntza eskatu zioten, eta lehenengo kontzertua eman zuten.

Garai horretan diskoa grabatzeko ideia sortu zen ere. "Lagun batek argazkiak egiten ditu, eta urtebetetzerako argazki saio bat oparitu zigun, "eta dena haritzen joan zen". Carcarreko beste lagun batek diskoak grabatzen ditu eta diskoa grabatzeko aukera sortu zitzaion. Diskoa *Rompiendo el guion* deitzen da, abesti baten izenburua da, eta "garrantzitsua" iruditu zitzaion "emakumearen indarra erakustea": "Emakumea izateagatik dagoenarekin apurtu behar dugu eta irakatsi digutena aldatu behar dugu; ikasitakoa desikasi behar dugu. Gelditzen zaigun aukera bakarra da". Diskoaren irabazien %80 ACNUR Gobernu Kanpoko Erakundearen sexu indarkeria jasan duten emakumeen proiektu batera bideratzen dute. "Argi geneukan diskoa kaleratzen bagenuen emakumeak lagundu nahi genituela. Ez genekien nola, eta proiektu hau agertu zen".

Zuzenekoak

Ojos Violeta taldearen kontzertuak lau bloketan edo gaitan banatuta daude eta, gutxi gorabehera, Amaiaren prozesua erakusten dute: genero indarkeria, ahizpatasuna, maitasuna eta ahalduntzea. "Normalean sentsazioa da ez dutela ikusiko dutena espero. Formatua deigarria da". Abestu ez ezik, gai bakoitzaren inguruko testuak irakurtzen baitituzte. "Baliteke publikoaren zati bat molestatzeko, edo, behintzat, pentsarazteko". Espero "ez dutun" istorioak kontatzen dituztela esan du. "Gertuko pertsonerekin ezin zuten pentsatu horrelako istorioak gertu izatea". Geroz eta konfiantza gehiagorekin ateratzen dira oholtzara, eta "pila bat" disfrutatzen ari dira. "Kontzertuen bidez borroka honetan jarraitu nahi dugu. Hori da momentuz aurreikusita duguna". Oso pozik daude.

Bitartean, Amaiak sortzen jarraitzen du, baina ikasturtea dela eta, "gutxiago". Abesti bat atera behar zaionean "barrundietan" zerbait nabaritzen duela esan du. "Agian ikusi badut zerbait ez zaidana gustatu, nabaritzen dut kontatzeko gogoia, eta ez zaidanez hitzekin ateratzen, gelan sartzen naiz eta konposatzen hasten naiz".

Arratsaldeko ordutegiaren jarraipena

Pandemiaren aurretik Etxarri Aranazko kultur emanaldiak 22:00etan programatzen zituzten, egoeraren eraginez, aldiz, 19:00etara aldatu ziren. Ordutegiak ekarri dituen onurak direla eta, arratsaldeko ordutegiarekin jarraitzea erabaki dute

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Aurki bi urte eginen ditu COVID-19 birusa agertu zela, bizi ohiturak aldarazi zituen pandemiaren eragileak. Kulturen ere eragin nabaria izan du koronabirusak. Berarekin batera etorri ziren 2020ko martxotik aurrera hainbat osasun neurri bete beharra edota etxeratze aginduak, ordu jakin baterako guztiok etxean egotera behartzen gintuena. Etxarri Aranazko Udalaren Kultur Zerbitzuak pandemia aurretik emanaldiak 22:00etan programatzeko ohitura zuen, "baina ezarritako neurriengatik ordutegi hori ezin genuenez, 19:00etara aldatu genuen", azaldu

du Amaia Ijurra Araña kultur teknikariak.

Teknikariak gogorarazi duenez, 2020ko azaroan egin zuten ordutegi aldaketa. "2020ko udaberri eta udan ekitaldi gehienak kalean egin genituen, Etxarrin Uda Bizi programaren barruan. 2020ko azarotik gaur arte, ikuskizunak arratsaldez izaten ari dira" azaldu du Ijurrak. Gaineratu duenez, "publikoak ongi erantzun zuen; oso ongi 2020ko maiatzetik 2021ko udazkenera. 2021eko udazkeneko programazioan jende gutxiago etorri da eta ez dakigu zergatik". Sarrera gehienak online erosten dituztela esan du teknikariak.

Bertso saioa

Etxarri Aranazko udazkeneko kultur programazioaren barruan, igandean, otsailaren 6an, 18:00etan, bertso saioa izanen da kultur etxean. Goi mailako bertsolariek osatzen dute kartela, tartean bi etxarriarrak: Eneko Lazkoz bertsotan eta Saats Karasatorre gai jartzaile lanetan.

Hortaz, Oihana Iguaran, Alaia Martin, Aitor Sarriegi, Eneko Lazkoz eta Julio Soto bertsolariek eginen dute Etxarri Aranazko igandeko bertso saioa. Sarrerak 6 eurotan eros daitezke Etxarri Aranazko Udalaren webgunean.



Jendea kultur gunean. ARTXIBOA

Filmotekari lortia kultur gunean harrera ona egin zaio

Udazkeneko hiru astelehenetan ikus-entzunezkoak ikusi eta zuzendariekin hizketatzeko aukera izan du publikoak

Alfredo Alvaro Igoa

ALTSASU Hezkuntza, osasuna, langabezia, etxeen zaharberritzea... Oinarritzko zerbitzuez aparte, Nafarroa izenlaguna duten gainontzeko zerbitzu publikoak Iruñean zentralizatuta daude. Horien artean dago Nafarroako Filmoteka, Iruñeko Mendebalde auzoan egoitza duena. 2011ko martxoaren 1etik bere egoitzan programazio jarraitua eskaintzen du Nafarroako Filmotekak.

Filmoteka Nafarroan

Foru administrazioaren kultur azpiegiturak bere jarduna Iruñetik kanpo atera du udazkenean Filmoteka Nafarroan zikloaren bidez. Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, filmotekak herrialdeko hainbat toki erakunderi programazio sare batean parte hartzeko gonbita egin zien. Beti ere, proiektzio baldintza tekniko jakinak betetzen bazituzten. Eta, horrela, estreinakoz, Nafarroako Filmotekaren programazioa Lizarra, Leitza, Tafalla, Corella eta Altsasura iritsi zen udazkenean.

Filmoteka Nafarroan zikloaren barruan Iortia kultur gunean Nafarroako hiru zuzendariren hiru ikus-entzunezkoen emanaldiak eskaini zituzten lastaila eta abendua bitartean, astelehenetan: Jaime Murciego eta Pablo Iraburu *Cholitas*, Angel Garroren *Esculpiendo la historia*. Joxe Ulibarrena eta

Oskar Alegriaren *Zumiriki*.


Emanaldiez aparte, ikus-entzunezkoen zuzendariak ere izan ziren Altsasun, publikoak galderak egiteko aukera izan zuen, zikloak forum formatuan antolatu baitzen.

Harrera ona

Altsasuko kultur teknikari Betisa Anda Arruabarrenak jakinarazi duenez, hiru astelehenetan, guztira 205 pertsona izan ziren Nafarroako filmoteka ibiltariaren emanaldietan. Altsasuko Kultur Zerbitzuak zikloaren balorazio "oso ona" egin du, "aukera polita da zinemagileak ezagutzeko, publikoak sortzeko eta Sakanara Nafarroako beste kultur instituzio batzuk gerturatzeko, haiek ezagutu eta lankidetzan aritzea". Kultur teknikariak jakinarazi duenez, jendeak ziklari harrera "ona" egin dio, "jendeak zuzendarien azalpenak asko eskertu ditu" zehaztu du Andak.

Cristian Ruiz Carrerak Filmoteka Nafarroan zikloko arduradunak esan duenez, zikloak harrera onena izan duen herria Altsasu izan da.

Nafarroako Filmotekaren eta Altsasuko Udalaren Kultur Zerbitzuaren arteko elkarlanak segida izanen du. eta otsailan eta martxoan zehar Emakume nafarrek zuzendatuko film ziklo bat izanen da Iortia kultur gunean. Eta udazkenean beste ziklo bat izanen dela jakinarazi dute.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Oihan hitzean mundua

Gaur pantailatik pixkat aldenduko naiz, liburuetan murgiltzeko, zientzia fikzioan zehazki.

Zientzia fikzioa eta fantasian ikur bat baldin badago, hori da Ursula K. Le Guin. 1929an Berkeleyen jaiotako idazle feminista honek zientzia fikzioa idazteko modua goitik behera aldatu zuen. Kultura neoliberalak zientzia fikzio kontserbadore mota batera ohitu gaitu, oraina etorkizun distopiko batean bakarrik luzatzen duena. Ursula K. Le Guin zientzia fikzioak, aldiz, beste mundu alternatibo posible batzuk arakatzeko ditu, adibidez, *Desjabetuak* eleberrian. Eleberririk gaurkotatzen handia hartu du egungo kolapso egoera honetan, kapitalismoak gure baliabideen pobrezia eramaten gaituen honetan,

beste gizarte mota bat sortzeko aukera badagoela erakusten baitu. Ez dugu zertan *Mad Max* motako etorkizun batean bukatu, beste gizarte mota bat posible dela, elkar zaintzaren mundua, Anarresen mundua. Nahiz eta mundu honetan bizitzea ez den guztiz erraza izango.

Bada Ursula K. Le Guinen liburu bat euskaraz aurkitu dezakeguna, nahiz eta *Desjabetuak* eleberria euskarara itzultzeko hitza emanda egon. *Oihan hitzean mundua* da oraingoz euskaraz aurki dezakegun bakarra, Amaia Apalauza Ollok itzulia.

Igela argialetxean argitaratutako liburua altxor txiki bat da. Athse planetan gertatzen da kolonialismoari buruzko eleberririk hau, azalean agertzen den gizaki berdeen herrian. Athshetarrendako "oihan" eta "mundu" sinonimoak dira eta naturari loturik bizi dira. Ez dute indarkeriarik erabiltzen eta ametsen denbora eta mundu denboraren artean bizi dira. Terranoak, aldiz, Lur planetatik datozen kolonoak

dira. Tahiti Berria bezala izendatzen dute planeta, eta Lurrean dagoen egur gabeziari erantzunez datoz planeta honetara. Athshetarren mundua suntsitu nahi dute kolonoek: biztanleak esklabo gisa baliatu, egurra lortzeko basoetako zuhaitzak moztu, ekosistema suntsitu.

Kolonialismoaren alegoria da Ursula K. Le Guinek idazten duena eleberririk honetan. Pasa den mendean emandako kolonizazio prozesuak nola eman ziren ezagutu dezakegu, jatorrizko biztanleriaren gizatasuna ezabatuz, animalia moduan tratatuz, beren ingurua suntsituz edo kolonoen jarrera inposatuz. Baina badu gaurkotatzen zerikusia ere, gure planetarekiko dugun jarreraren kritika gogorra du atzean ere. Gure planetaren suntsiketara gertatu ez dadin, gizakion eta naturaren arteko harremana aldatu behar dugula argi agertzen baita eleberrian. Zientzia fikzioak asko ikasi daitekeela argi geratzen da Ursula K. Le Guinen edozein liburuan.



'Begirada ezberdin bat' erakusketa.

Begiraden indarra

Pobrezia eta gizarte bazterkeria azaleratzeko 'Begirada ezberdin bat' erakusketa sortu zuten, eta orain Sakanara iritsi da. Unai Beroiz fotokazetariak egindako argazkien bidez hamalau bizitza erakusten dira

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Pobrezia eta gizarte bazterkeriak hamaika aurpegi ditu. "Jendeak batzuetan uste du pobrezia sufritzen dutenak direla eskean aritzen direnak edo aterpeetan lo egiten dutenak. Baina horrez gain, zure eraikinean bizi den pertsona batek agian ezin du berogailua ordaindu edo ezin du haragia erosi". Hori ere pobrezia dela azaldu du Jaione Eugui Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Kontrako Nafarroako sareko kideak. "Halakoak egunero gertatzen dira, eta ez ditugu ikusten". Errealitate horiek ikustarazteko sareak *Begirada ezberdin bat* argazki erakusketa sortu zuen, eta asteazkenean Altsasuko Iortia kultur gunean mustu zuten. Otsailaren 20ra arte egonen da Altsasun, eta ondoren Sakanako herritara eramanez: Arruazura, Ur-

diainera eta Lakuntzara. Unai Beroiz fotokazetariak egindako argazkien erakusketa martxoaren 15era arte egonen da Sakanan, eta ibarrera Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuaren bidez ekarri dute. Anitzartean zerbitzuak "inklusiorako" lan egiten du. "Sakanara bizitzera etortzen den edonori bideak errazten eta beste begirada batekin aniztasunari aberastasun balioa emanez", azaldu du Bego Zestao zerbitzuko teknikariak. "Sinismen bat dugu: guztiok badugula zer kontatu eta zer eskaini Sakanako gizarteari eta gizarte orokorrari". Sinismen hauek kontuan hartuz, Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako Nafarroako sareatik *Begirada ezberdin bat* argazki erakusketa Sakanan egiteko proposamena egin zuten. Hainbat helburu elkar-

banatzen dituztenez, erakusketak mustu zuten Sakanan.

Pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontrako Nafarroako sareak 27 urte daramatza lanean pobrezia eta edozein motatako gizarte bazterkeriaren kontra. Sarearen barruan mota desberdinetako elkarteak daukela azaldu du Angel Pardo sareko kideak, eta helburua Nafarroan pertsonen "inklusio osoa" lortzea da. Pandemia urtetan, aldiz, pertsonen arteko distantzia ez bakarrik pertsonala baizik eta soziala handitu dela salatu zuen. "Horregatik

OTSAILAREN 20RA ARTE EGONEN DA IORTIAN; ONDOREN, ZENBAIT HERRITAN IZANEN DA

bizitzak gerturatzeko beste modu bat bilatzea erabaki dugu". Horrela sortu zen *Begirada ezberdin bat* argazki erakusketa. "Haien begiraden bidez, bere gizatasunaren bidez". Inklusioaren betaurrekoekin "inguruan bizi diren errealitate desberdinak ulertzen hasiko gara".

Argazki erakusketan, beraz, "oztopak eta desberdintasunak topatu dituzten" pertsonen bizitzak agertzen dira, eta ikusleari "enpatia izaten" laguntzen diote. "Begirada berri bat, arazoan oinarrietara iristea lagunduko diguna". Erakusketak eskaini nahi duen beste "begirada" bat da dibertsitatearen aberastasuna, "eta ez mehatxu bezala ikustea". Pardok gaineratu zuenez, erakusketa ez da bakarrik argazki sorta bat, "urrats bat aurrera emateko gonbidapena da". Gizartea "beste begirada batekin" begiratzeko gonbidapena.

Istoriok

Unai Beroiz fotokazetariak egin ditu *Begirada ezberdin bat* erakusketa osatzen duten argazkiak. Guztira, hamalau istorio kontatzen dira. Raul, Read familia, Belzunce fundazioko kideak, Aby, Manuel, Roel eta Domitila, Silvia, Francis, Brigit, Lantxotegi elkarteko kideak, Antox elkarteko erabiltzaileak, Super-vivientes emakume taldea, Daniel eta Secretariado Gitano fundazioko kideak dira protagonistak. "Gure sarea en-

titateek osatzen dute, eta batzuetan arriskutsua edo ikusten zuten pertsonen bizitzak hainbeste erakustea. Baina protagonistekin hitz egin genuenean, baietz esaten zuten", azaldu du Jaione Eugui sareko kideak. "Esaten ziguten haien istorioa kontatuz norbaiti interesgarria iruditzen bazitzaiezen edo inpirazio izan bazen, egingo zutela". Ideia oso polita iruditu zitzaiezen esan du. Nafarroako Parlamentuan mustu zuten, eta guztiak joan ziren. "Pozik zeuden"; baina beldurra ere ematen zien. "Dena dela, argazkiak oso politak dira eta oso artistikoak, errazagoa da".

Haien bizitzak plazaratzea, publiko egitea, argazki baten bidez erretratatzea zen sarearen eta argazkilaren helburua. "Le-kura iristen ginen aurretik ezer pentsatu gabe. Beraiekin hitz egiten genuen eta esaten genien ea zer kontatu nahi zuten argazki horrekin". Egileendako garrantzitsua zen protagonistek zer kontatu nahi zuten adieraztea. "Ondoren testuak ere pasatu genizkien, ziurtatzeko esaten zena ongi zegoela".

Orokorrean oso pozik zeudela esan du, baina bereziki "harro" zeuden. "Horrelako istorioak kontatzen zuten, aurreiritziak kentzeko. Haien bizitza zaila izan da, baina kontatu nahi dute". Izkutuko istoriak dira, baina hor daude, eta argazkien bidez ikustarazi dituzte.

"Tradizio xumea eta oso polita da"

Irurtzunen, normalean, asteazken eta ostiraletan, mezak 10:30ean izaten dira. Baina herenegun, San Blas egunez, Irurtzungo San Martin elizak 19:00etan hartu zuen elizkizuna. Han izan zen Aurora Burgui Roncal.

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

1 Zein zen San Blas?

Medikua eta gotzaina, Sebastian (Sivas, Turkia) bizi izan zen. Medikua izanik, hirian zeuden gaixoak artatzen zituen. Berarengana jotzen zuen jendeak, behartsuek batez ere. San Blasen berri mirari ospetsuagatik dugu. Kristau izateagatik hil egin zuten, lepoa moztuta. Hiltzera zeramatela ama batek hiltzorian zegoen haur bat besoetan zuela ikusi zuen. Sardina baten hezurak ezarria zulatu zion eta ezin zuen atera. San Blasek eskuak jarri zizkion eta arrain hezurra desagertu zen. Eta IV. mendetik gaur egunera arte pasa den ohituraren arabera ezarriko infekzioen zaintzailea da: eztulak, katarroak, ezarriko minak eta abar.



Aurora Burgui Roncal, medikua eta gotzaina.

2 San Blasen bitartez, nola egiten da ezarria zaintzeko?

Elikagaiak elizan bedeinkatzera eramaten dira. Bereziki, ur botila ona eramaten da, bedeinkatu ondoren familiek etxean gordetzen dutena. Eta ezarriko minen bat dutenean, katarroa edota eztul iraunkorra, bedeinkatutako ur horretatik pixka bat edaten da. Beste ohitura bat da kordoitxo batzuk bedeinkatzea. Jendeak, ondoren, lepoan jartzen ditu bederatzi egunez, lepokoan pare.

3 Kordoitxoek aparte, zein jaki eramaten dira bedeinkatzeko?

Nire amak elizara ur botila, ogi txiki bat, gatz pixka bat, azukrea eta fruta eramaten zituen. Baina badago jendea arroza, marmelada edota San Blas erroska ospetsuen poltsa bat eramaten dituenen. Errosken ohitura hori nondik heldu den ez dakit.

4 Zer egiten da jaki horiekin?

Elikagaiak mezara bedeinkatzera eramatearen gauzarik politena da ondoren banatu egiten dituela bere familian. Aldamenek ere ematen dizkizute. Herri pietateak errespetua eta miresmena merezi duela uste dut. Partekatzea da. Tradizio xumea eta oso polita da. Ez dakigula ahaztu. Komunitatea egiten du, aldamenen batasuna. Banatuta babesa jende gehiagorengana iristen da.

5 Mezara kapazuekin joaten zarete?

Poltsak beteta eramaten dira. Garai batean Irurtzunen poltsa guztiak aldarearen inguruan jartzen ziren. Orain norberak poltsa berarekin du bere tokian eta eukaristiaren ondoren apai-za bedeinkatzera pasatzen da.

6 Anis zaporea du egunak?

Erroskilla batzuei anisa botatzen zaie. Onak horiek dira: anisa, azukrea, irina eta olio gindakoak. Oso goxoak dira.

7 Pandemiarekin aldaketarik egon da?

Joan den urtean jende gutxi joan zen elizara, baina jakiak bedeinkatu ziren. Irurtzungo eliza hain handia denez, izkina bakoitzean banatu eta ez dago arazorik.

8 San Blas debozioa diozu?

Gainontzekoei on egiten dieten pertsona guztiei diet debozioa nik. Mirariak aparte, jakin izan dut San Blas oso apala zela eta besteak zerbitzatzen zituela, bai debozioa diot. Bera bezalakoa izatea gustatuko litzaidake.

9 San Blas bezperan Kandelaria. Joan zinen elizara?

Erljio festa da. Juduek duten arauetako bat da: emakumezkoak erditu eta 40 egunera andreak umea tenpluan aurkeztu behar du. Tenpluan, behartsua bada, bi usakume eskaintzen ditu, eta aberatsa bada bi arkume-edo, bere tenpluan jainkoarendako sakrifikatzen. Ama Birjina eta Jose juduak zirenez, Jesus haurra jaio eta 40 egunera Jesus aurkeztera tenplura joan ziren, bi usapal eraman zituzten.

10 Eta zer esan nahi dute kandelak?

Jaungoikoa, Jesus, gure artean presente dagoela sinbolizatzen dute. Eta Ama Birjinak Jesus tenpluan aurkeztu zuen moduan, guk kandela horren bitartez aurkezten dugu Jaungoikoaren presentzia gure artean. Eliza atean kandelatxoak dituen azpil bat jartzen da. Joaten direnek bana hartzen dute eta eukaristiaren hasieran pizten da. Elizaren inguruan prozesioa egiten da. Baina pandemiarekin gauza asko ezin direnez egin, gauden tokian gelditu, kandelak bedeinkatu eta eukaristia bukatzen da.

11 Zer egiten da kandelekin?

Etxean gorde. Ekaitza badago, argindarra joanez gero... Bete sentipen hori duzu zerbait sakona, transzendentea dela. Norberak duen bizipenaren arabera garrantzia ematen dio. Halako ohiturak ez lirake se-kula galdu beharko. Haurra naitzenetik amari eta herrietako jendeari ikusi dizkiodan gauza horiek guztiak belaunaldiz belaunaldi pasatzen diren tradizioak dira. Pena handia ematen dit galtzeak. Gaur egun dugun bizi-moduagatik dela uste dut. Eta hor daude gure amonak eta amak gazteagoek denbora faltagatik egin ezin dutena ordezkatzeko. Ez da inoren akatsa, gaur egun gizartea egituratuta dagoen modua da.

2022-2023 MATRIKULAZIO KANPAINA

Beharrezko material guztiarekin lagunduko dizuegu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



DISEÑUA ETA
KOMUNIKAZIOA



619 821 436
info@gikomunikazioa.eus
www.gikomunikazioa.eus
Feru plaza, 23-1. Aizasu

